

TOKIKOM

2012ko urtarrila | 111. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

10 urte
Txorierritarron
sarea josten

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 558 172

Faxa: 944 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 520 826

Faxa: 944 521 349



"Txorierri" B.H.I. (Derio)

Tel.: 944 543 258

Faxa: 944 543 262



"Gorondagane"

Herri Ikastetxea (Sondika)

Tel.: 944 531 020

Faxa: 944 531 020



Derioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 541 246

Faxa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Faxa: 944 555 163



MATRIKULA

Urtarrilaren 27tik Otsailaren 10era



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Gaizka Peñafiel, Toti Mtnez, de Lezea, Susana Rodríguez, Eleder Gorrotxategi, Xabier Díaz, Itsasne Zubiri, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Portadako argazkia: Amaia Bustinza

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Utreko lehenengo ehiza**
- 12 Gurean izan da... Iñigo Iraultza García, aktorea**
- 14 Gaztea eta... Agurtzane Pérez**
- 16 Inauteriak**
- 18 10. urteurrena**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 Daniel Ojanguren, aeromodelista**
- 26 Sarraila berria**
- 28 Panpinatxuak, botoi-zuloan**
- 30 Elkartek... SD Zamudio areto-futbol taldea**
- 32 Txorierri ezagutu... Loiuko abade-etxeak**
- 34 Teknologia... Azken Judizio Erlojuak**
- 34 Aikorrizketan... Ontzi berean euskara eta erdara**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Aislamientos Derio Tabikeak
Pladurrezko sabalak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Aieria Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urte 7, behe
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea: umeak

eleizalde
kafetegia
Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)
48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Oinordetzan utzi zigutena, oinordetzan utziko duguna

Orain dela gutxi arte, baserriari eta itsasoari lotuta egon da gure herriaren kultura. Jende apalak ziren gure aurrekoak, eta halakoxeak ziren, orobat, haien bizimoldeak, nekazaritzan, arrantzan, artzaintzan eta eskulangintzan oinarrituak; hau da, Naturan oinarrituak, hark ematen baitzien bizirik irauteko behar zuten guztia, eta hari erantzuten baitzieten begirunez eta mirespenez. Bizirik jarraitzeko, orde, aldaketa eta konkista teknologikoetara egokitu beharra ere izan zen, nahiz eta artean ere begirune handia izan zen Naturaren aldera, eta arauak eman ziren hura babesteko.

XIX. mendearen erdialdean, itzultzerik gabeko bide bati eman zitzaion hasiera. Industrializazioak joritasuna eta aberastasuna ekarri zituen, euskaldun guztioi neurri handiagoan eta txikiagoan mesede egin digutenak. Herri eta hiri txikiak biztanlegune handi bilakatu ziren, eta halakoek etxe-

bizitza- eta zerbitzu-beharrizan handiak izan zituzten; eskakizun berriak erantzuteko, basoak eta laborantza-lurak kendu ziren; horren ondorioz, landa-eremuak pobretu egin ziren eta fauna eta flora galdu egin ziren toki askotan.

Aurrerabideak onura asko ekarri dizkigu, baina baita zabortege eskergetara eramaten diren milioika tona zabor ere; halakoek aukera oro galarazten dute bizitza basatia eta animaliak izan daitezen beren inguruetan, eta lur azpiko urak kutsatzen dituzte, lur urrunagoen elikagai direnak. Produktu toxikoen isurketaren aurkako araudiak behin eta berriro urratzen dira, hainbestearino non erreka garbi bakar bat ere ez baita geratzen nolabaiteko industrializazioa duten eremuetan. Neurri gabe erai-ki da, egiaz beharrezkoa dena baino gehiago, hainbestearino non lehen baserri- edo arrantza-leherriak zirenetako asko lo-herri



TOTI MARTINEZ DE LEZEA
(Idazlea)

bihurtu baitira. Gure airea kutsatuta dago, gure urak infektatuta daude, erregaiek gure itsasbazterrak pozoitzen dituzte, gure mendiak hormigoi nahasgailuetan desagertzen dira eta motorren zaratak txorien txioa isiltzen du.

Gure zaharrek oso herrialde ederra utzi ziguten oinordetzan, esperientzietan jantzia, historiak zaildua. Ez dago atzera itzultzerik, eta baliteke itzuli nahi ez izatea ere, baina gauza izan behar dugu geure ondorengoei arimarik gabeko burdina eta adreilu pila bat baino zerbaite gehiago uzteko.

Urte erdiko neskatilak kantuan jarduten du, inork ulertzen ez duen hizkuntzan, baina melodia atzeman-garrian. Aitabitxiren kantuekin batera jaio zenak ez du oraindik hitz egiten, baina kantuan badaki eta hala adierazten ditu emozioak. Bitxia da gero, kantuekin jaiotzetik dugun harremana; jatorrizkoa, oldezkoa.

Abestea unibertsa den arren, ohitura honek badiu sustrai sakonak Euskal Herrian, eta hala transmititu dira belaunaldiz belaunaldi gure ondarearen euskarri asko. Izan ere, zenbat pasadizo, eskarmentu, sentimendu... adierazten dira nota musika-

Kantuz



GAIZKA PEÑAFIEL
(Musikaria)

lak eta hitzak uztartuz, kantagintza adierazpen artistiko borobilena bilakatu, ziur asko.

Batzuetan bakardadean abesten dugu; gustura gaudenean, lagunartean; eta inoiz ahopeka ere bai, bihotz bi sintonizatzeko. Entzulea gatibu hartzea da xedea, baina bide batez kantaria ere aske geratu ohi da; norabide biko terapia da kantatzea.

Kantuz aritzea bizitzarekiko jarrera da, Joxe Mendigak primeran islatu bezala: "kantuz eginez gero mundura sortzia, kantuz egin beharko dut ene ustez hiltzia". Hala bada, kantuz harropa gaitzala heriotzak.

AURREGOITI JATETXEA
Laurietako etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Fax: 94 453 24 40
restaurantaurregoiti.com

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETARRESNA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISTAK ETA EKRETSUNA ELEKTRIKO TROKAK
leherengo markak • Prestakiri onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Lehen etorbidea, 25-374 • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantza kalea, 8 - 1.624,
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

Estralurtarrek hartuko dute Sondika

Altzora Sondikako euskara elkarteak sortu berria dugu gurean. Elkartea herrian euskararen erabilera bultzatzea du helburu, eta bideak zabaltzea sondikoztarrek euskaraz bizi ahal daitezen. Horren haritik, hainbat ekimen antolatu dituzte herria girotzeko: argazki lehiaketa, kantu-poteoa eta kirol medikuntza arloko hitzaldia, esate baterako. Inauteri-usaina dago herrian eta ospakizun horietarako ere ekimen berezia egitea pentsatu dute. Hala, otsailaren 24an mozorroa jantzi eta herriko bazterretatik ibiliko dira

Inauteriak euskaraz bustitzeko. Baina egun horretan ez dira bakarrik arituko. Taberna Ibiltaria taldeko kideak eurekin batera aterako dira, eta Sondikako tabernak atzo eta gaurko euskal kantuz beteko dituzte. Altzora eta Taberna Ibiltariako kideak estralurtarrez mozorrotuko dira, euskaraz han eta hemen bizi behar delako. Beraz, ez harritu Sondikako kaleetan eta tabernetan zehar beste planetetako izakiek euskaraz egiten dutela ikusten baduzue. Estralurtar euskaldunen inbasioa da.

Literaturaz berbetan

Otsailaren 16an, eguenean, Asel Luzarragak idatzitako *Gezurra odole-tan* liburua izango dute hizpide Larrabetzun. Hitzordua Anguleri kultur etxean izango da iluntzeko 8etan. Saioa Literaturaz berbetan ekimenaren barruan antolatu dute.

Irteera sagardotegira

"Txotxi!" urtarrilaren 11n esan zen aurreko lehenengo aldiz, eta bete-betean sartu gaitu sagardotegien garaian. Horren haritik, Txepetxa Derioko AEK euskaltegiak irteera bat antolatu du otsailaren 11rako. Herri-
tik 11:00etan irtengo dira, eta eguerdian triki-poteoa egingo dute Arrigorriagan. Ondoren, Larre-gain sagardotegian bazkalduko dute. Arrastian, Hernanira joango dira. Irteerak 35 euro balio du lagun bakoitzeko, eta otsailaren 7ra arte eman ahal izango da izena. Derioko Udalak diruz lagundu du jardura hau.

Olentzero Eguneko argazkiak ikusgai

Lezamako Udalak Olentzero Eguenean ateratako argazkirik onenak jarri ditu ikusgai. Erakusketa otsailaren 3ra arte egongo da zabalik, Kultura Aretoan. Egun horretako argazki guztiak batzen dituzten albumak ere jarri dira ikusgai liburutegian. Herri-
tarrek badute dute argazkiak erosteko aukera; bakoitzak 3,50 euro balio du.



ama
taberna

lezuola plaza, 2 - behe (Zamudio)
94 452 73 69

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

COMPARTO LURLANGILEEN ETXEA
COMPARTO DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cda. 517
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ESTILISTA
EVA ARDINES

NEKA-MUTILEN
ELAPAINDIZIA

AmAr

Asteartea - Ostirala: 9etatik-15etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19 (Aurreko txanda)

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA



Tipi-tapa, Zamudion

Sasimartxo dela-eta, Arroeta Zamudioko mendi taldeak eta bertako Udalak ekimena egingo dute herriko inguruak ezagutzeko. Otsailaren 12an izango da, eta ibilbide bi egiteko aukera egongo da, bata luzea eta bestea laburra. Ibilbide luzea egin nahi dutenek goizeko 8:30ean egon beharko dute Sabino Arana plazan. Ibilbide hori Done Jakue bidetik igaroko da. Ibilbide laburra, berriz, goizeko 9:30ean aterako da Sabino Arana plazatik. Herriko bazterretatik tipi-tapa ibili ostean, hamaiketako eskainiko da Larragoiti txokoan. Otordua goizeko 11:30ean izango da eta, besteak beste, taloa eta txerriak banatuko dira parte-hartzaileen artean.

Larrondoko pilotalekua otsailean zabalduko da berriro

Aste batzuetan itxita egon ostean, Larrondoko pilotalekua otsailean jarriko da berriro martxan. Josu Begoña kultura zinegotziak azaldutakoaren arabera, aurtengo aurrekontuak egokitu behar izan dituzte gastuak murrizteko eta horrek, besteak beste, pilotalekuan izan du eragina. Pilotalekua Bizkaiko Pilota Federazioak kudeatu du abenduaren 31ra arte. Bere kudeaketaren truke, Udalak 25.000 euro ordaintzen zion urtean Federazioari eta, gainera, diru-kopuru horri ez ezik beste gastu batzuei ere egin behar zien

aurre: argindarra, ura, aseguru eta azpiegituraren mantentze-lanak, esaterako. Oso aurrekontu handia zen eta Udalak erabaki du Federazioarekin zuen hitzarmena bertan behera uztea. Udalak kudeatzaile berria kontratatzeko prozesuan egon da murgilduta, eta azpiegitura urtarilaren 1etik hona egon da itxita, "kudeatzaile berria topatu arte legeak hala agintzen duelako". Begoñak jakinarazi digun bezala, prozesua amaitutzat eman dute eta pilotalekua otsailean zabalduko da berriro.



MAGALARTE
MINDEGIAR

FRUTA-ARBOLEN LANDARE ZERTIFIKATUAK EGITEN
DITUEN EUSKADIKO MINDEGI BAKARRIA

Ctra. Sta. Dominga - Berio
Galbarritu auzoa, 2 - 48170 Zamudio (Bizkaia)
Tel.: 94 454 03 03


hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com


luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia


Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierrito elorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



“Sondikako Udala” Areto-futbolaren XXIV. Txapelketa

Hegalariek Sondikako Kirol Klubak eta Udalak Areto-futbol Txapelketa antolatute 24. aldiz. Txapelketari otsailaren 5ean emango zaio hasiera. Partidak Goronda Beko kiroldegian jokatuko dira eta sarrera doan izango da. Partiden egutegia urtarri-laren 31tik aurrera egongo da ikusgai Goronda Beko kiroldegian eta www.sondika.net webgunean. Irabazleak garaiku-

rra eta kirol materiala erosteko 50 euroko hamabi txartel jasoko ditu sarritzat; eta bigarren sailkatuak, garaikurra eta kirol materiala erosteko 10 euroko 12 txartel. Beste alde batetik, beste hauek ere jasoko dute sari bana: gol gehien sartzen duenak, gol gutxien jasotzen duen taldeak, kiroltasun handieneko jokalariek eta jokalaririk onenak.

Kontserbak egiteko ikastaroa

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Kontserbak egiteko ikastaroa antolatu du. Hura otsailaren 21ean eta 28an, eta martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an izango da, 17:00etatik 20:00etara, Torrelarra-goitiko txokoan. Izena ematea otsailaren 7ra arte egin daiteke: 94 452 34 47 eta lagatzu@lagatzu.org.

Bertso-afaria

Lauroetan, Loiuko auzoan, txarriboda/bertso-afaria antolatu dute otsailaren 24rako. Aurrekoetan bezala, ekimena Aurregoiti jatetxean izango da gaueko 9etan, eta han Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballes bertsolariak arituko dira bat-batean. Afariak 26 euro balio du eta, izena emateko, telefono hauetara dei daiteke: 649497147 (Iñaki), 944533786 (Juanxu) eta 944532440 (Aurregoiti jatetxea).



EGUNEKO MENUAK
ESPEZIALITATEA, TORTILLAK
Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

CAFE-BAR BIDE-GORRI
Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8.00etatik irekia
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel. 94 452 26 75

BAR BIDE-BI
Zamudio
Aukeratu zurea!
Goizeko 5etatik aurrera zabalik
Gosari bereziak
Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

ERREKA BORDO ETXEA
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiari bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GAMINIZ JATETXEA
Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N
www.gaminiz.com

Kanporamartxo

Tximintx Derioko euskara elkar-teak Kanporamartxo antolatu du otsailaren 12rako, domekarako. Kanporamartxo Inauteriei lotutako antzinako ohitura da. Herritarrak landetan biltzen ziren, eta txerriak erretzen eta jaitxoak egiten ematen zuten eguna. Ohiturak bizirik jarraitu du gure herri batzuetan, baina Derion aspaldi da galdu zela. Tximintxek ohitura hori berreskuratu zuen orain dela urte batzuk. Aurten, derioztarrek arrastiko 5etan dute hitzordua Santi Mamiko landetan. Tximintx elkarteko kideek ikatza eta edaria ipiniko dituzte, eta jatekoa norberak eraman beharko du. Ume-entzako jolasak ere antolatuko dira.

Geldoko eskola zentro soziokultural bihurtuko da

Laster hasiko dira Zamudioko Geldo auzoko eskola zaharberritzeko lanak. Izan ere, auzo eskola hori zentro soziokultural bihurtzeko asmoa du Udalak, eta auzokideek hura erabili ahal izango dute batzarrak, festak eta bestelako ekimenak egiteko. Eraikinak suetea eta jantokia izango ditu eta txoko moduan erabiliko ahal izango da. Era berean, aparkalekua egokituko da kanpoaldean, eta karrajua ipiniko da idi-probetarako. Bestetik, auzoa zeharkatzen duen errepidea ere konponduko du Udalak, unekada batzuetan hondatuta dagoelako lur azpiko uren ondorioz.



ERREGULARTASUN RALLYA.– Zamudio Racing Elkartek Sport Erregulartasun Rallya antolatu du lehenengoz, otsailaren 25erako. Ekimena 25 urtetik gorako ibilgailuei dago zuzenduta, errepide itxian egingo da eta baliagarria izango da Sport Erregulartasun Euskal Txapelketarako. Ibilgailuak Arbolantxa kaleko oinezkoentzako gunean egongo dira 9:00etatik 11:00etara, 13:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Goizean, bitan igaroko dira Sandoniko ibilbidetik eta beste bitan Geldotik. Arratsaldean, hirutan igoko dira Viverora, eta beste hirutan egingo dute Fika eta Lezamaren arteko tartea.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA

Txonierrri Etorbidea 9, 4. 413
a.amondarain@euskalnet.net

48160-DERIO
T./Faxa: 94 454 44 98

OSKARBI
fotografoak

JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apezetx@euskalnet.net

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Mascotas Maider

Koepainiako animaliak,
Txakurren jito-apaindegia
Osagarriak
Elikadura

Plangile eta Gernikako arbolaren txakurren, 48160 Derio - T: 94 404 21 80

Vértigo

GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Torreanagoiti ind. P.8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel: 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34

Agroekologia eta kontsumoari buruzko jardunaldiak

Gurpide Larrabetzuko elkarteak agroekologia eta kontsumoaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu otsailaren azken asterako. Ekimena Txispamendi gurasoen elkartearen laguntzarekin antolatu dute. Datak oraindik zehaztu barik badituzte ere, jardunaldietan aztertuko diren gaiak



aurreratu egin dituzte. Besteak beste, sasoiko produktuak ezagutzeko mintegia egingo dute. Sukaldari-nutrizionista baten eskutik eta baserriarren gidaritzapean, herriko baserriak bisitatuko dituzte, neguko produktuak eta haien ezaugarriak ezagutzeko. Era berean, produktu batzuk batu eta sukaldean prestatuko dituzte.

Herriko lagun batek Kuban egon da orain dela gutxi, eta aukera eduki du hango agroekologia mugimendua ezagutzeko. Gai hori ere izango dute hizpide jardunaldietan eta horretarako, diaporama-hitzaldi bat emango da. Kubak nekazaritza eredua goitik behera aldatu behar izan zuen Sobietar Batasuna desegin ostean, petrolio iturririk gabe gelditu zenean. Hogeitaz urte pasatu dira harrezkero, eta Karibeko irlan gai izan dira egoerari buelta emateko: nekazaritza petroliotik askatu eta agroekologiaren bidea hartu du. Bestetik, baserriaren inguruko erakusketa txikiren bat ere egingo dute.

Jardunaldien data zehatzak eta zeheztasunak otsailaren hasieran emango dituzte ezagutzera, kartelen eta www.larrabetzutik.org webgunearen bidez. Gurpide elkarteak adierazi duen moduan, urtean zehar ekitaldi gehiago antolatuko dituzte nekazaritza eta kontsumo arloan.



Jostailuen bilketa, Lezaman

Lezamako Udalak kanpaina berri bat jarri du martxan, eta horren bitartez herritarrek animatu nahi ditu seme-alabek erabiltzen ez dituzten jostailuak ludotekara eramatera. Ludoteka lau urtetik zortzi urtera bitarteko umeentzako gunea da eta edade horretako umeei zuzendutako jostailuak, jokoak, puzzleak, panpinak... eraman daitezke bertara.

Izapideak on-line

Zamudioko Udalak bere webgunea berritu du, eta udal izapideak bertan egiteko aukera ematen die orain herritarrei. Besteak beste, errolda-ziurtagiria, hitzordua eta ziurtagiri bereziak eskatu daitezke www.zamudiokoudala.net webgunean. Dokumentuak aurkeztu eta banku-helbideratzeak ere egin daitezke webgunearen bidez.



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73



GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bihotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7, 1. dptoa
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74



Agur, familia eta lagunak. Gerrara noa...

Abenduan, 50 lagun inguru batu ziran Garones Loiuko baserrian, herriko gudari bateri agur esatera. Gerra zibila hasi da eta gazte loiuztarra gerra-tokira doa, etxean emaztea eta seme-alaba txikiak itxiko dituala. Agur-ekitaldian, familia bildu da, auzokideak eta herriko dantzariak, txistulariak eta musikariak. *“Ez negar egin, ez negar egin”* abesten dabe, gudariari agur esaten deutsien bitartean. Abestia Jesus Sustatzak idatzi dau, eta ha zein agerraldia Luis Gómezegaz batera egiten dabilen dokumentalean sartuko dira. Behar horretan 36ko gerrak Loiu eta bertako biztanleengan izan zituan ondorioak jasoko dabez.

Dokumentazioa batzeko, Jesusek eta Luisek alkarrizketa egin deutsie gerra bizi eben herriko 14 laguneri, eta arretaz arakatu dabe Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo Historikoan, Sabino Arana Fundazioaren artxiboan eta Aranzadi eta Ilargi alkarteetako agiritegietan. Lekukoen testigantza eta batutako informazioa izango dira dokumentalaren hari nagusia. Gerraren lekukoek

kontau deutsiez, besteak beste, fusilamenduak barikuan egiten zirala Derioko hilerrian, eta zelako estrategiak ebezan hegazkinek bonbardaketak egiteko orduan, baita tropa frankistak Loiura Lañesetik sartu zirala be. Agiritegietan garai hatako dokumentu sorta zabala topau dabe: bonbak Loiu

non jauzi ziran, zinegotziei ezarritako zigorrak, gerran hil ziranen datuak eta herriko gudarien argazkiak, banaka batzuk aitatzearren. *“Informazioa pitinka-pitinka atera behar izan dogu handik eta hemendik. Baina argi dago Loiu gerran uste baino zeresan garrantzitsuagoa izan ebala. Adibidez, Artxandako garrikoaren zati bat Lauroetan egoan eta Pozozabalen be egon ziran metrailadoreak. Era berean, Elotxelerrin ospitale militarra ipini zan, eta preso asko aireportua eregiten ibili ziran”*. Beharraren ondorioak eta aurkikuntzak aurten ezagutuko ditugu.





Urteko lehenengo ehiza

Zelatan. Urtea hasi baino ez da egin, eta Larrabetzuko katuak jo eta su dabilta sagutxo, arratoi eta txori bila. Guk, oster, nahikoa dugu urtarileko malda honetatik bizirik irteten bagara. Harrapakinik? Batek daki: lanik?, soldata duinik? Gizakiok zelatan baino "zelatan hemen?" galdera egin beharko genioke geure buruari. Eta katuak bezala, nahi dugun horren bila irten, edonora. Horrela dabilta Larrabetzuko katuak urtearen lehenengo ehizan. Horrela egon beharko genuke guk ere.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

am
FORMACIÓN Y TRADUCCIONES

www.am-formation.com info@am-formation.com

Garaioitza 120 D
48106 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremerterri, 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

—INGURU ESKOLA
—MAIA GIATIAK
—AZTERKETA OFIZIAIAK
—EUTENO PRESTAKUNTZA
—ONE-TO-ONE ESKOLA
—PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
—ESKOLA KARRAKO KLASEAK
—ITZULPEN ZERBITZUA

ATARRABI



Erremerterri, 14 - 48150 SondiKA
Tel. 944 531 928

"Eltze askotako burruntzalia izatea gustatzen zait"

IÑIGO IRAULTZA GARCIA "IRU" | aktorea

Hainbat lekutan ikusi dugu Iñigo Iraultza García "Iru" (Bilbo, 1976): telebistan, antzerkian... Izatez aktorea da, baina dantzaria, idazlea eta zuzendaria ere bada. Erabateko artista. Urtarrilean Sondikara hurbildu zen, eta han gazteen arteko elkarbizitzaren aldeko antzezlanak aurkeztu zuen.

t: Gaizka Eguskiza / a: GE, "Iru"

Gazteen arteko elkarbizitza sustatzeko ekimenean hartu duzu parte. Zer deritzozu hari?

Ikuskizunean gazteekin hitz egiten dugu: gatazkak bideratzeko moduak, enpatia lantzearen eta entzutearen garrantzia... Gure emozioak ezagutu eta horiek gidatzeko pista txiki batzuk ematen saiatu gara. Saioan elkarri ulertzeko beharrezkoak diren oinarritzko balioak aurkeztu dira, modu ludiko eta dinamikoan, eta gazteak dira protagonistak. Nire ustez, beharrezkoa da honelako gaiak lantzea, gure eguneroko bizitzan besteekin komunikatzeko gai izateko. Bestalde, lan talde polita osatu dugu: Maite Bayon eta Jon Urraza aktoreak, Olof eta Invert rape-roak... Oso gustura ibili gara!

Nolako ikusleak dira gazteak?

Oso zorrotzak dira. Ikusle errazak ez dira, baina, beraien arreta lortuz gero, es-

"Gazteak ez dira ikusle errazak, baina haiekin lan egitea asko gustatzen zait"

ker onekoak dira, hunkitu egiten dira eta zirrarak helarazten dizkizute. Gazteekin lan egitea asko gustatzen zait.

Dantzaria, aktorea, zuzendaria.... Erabateko artista, ezta?

Betidanik gustatu zait eltze askotako burruntzalia izatea. Atal bakoitzean gozatzu dut, eta, guztiak elkarri lotuta daudenez, bakoitza beste ikuspegi batetik aztertzeak aukera dut.

Nondik datorkizu grina?

Institutuan ez nintzen ikasle ona izan: ez nengoen oso motibaturik. Hainbat gauza probatu ondoren, antzerki eskola

"Institutuan ez nintzen ikasle ona, baina geroago antzerkiaren deia sentitu nuen"

batean sartu nintzen, baina zootik ihesi doan elefante baten antzera ateratu nintzen hortik, hau da, nahastuta eta korrika. Hainbat urte eman nituen korrika, antzerkiari buruz ez nuela ezer jakin nahi. Orduan, FTIrekin (Fábrica de Teatro Imaginario) obra bat egin eta berriro sentitu nuen deia. Ertza konpainiarekin dantza eta antzerkia egin nituen. Gero, hainbat teleaiotan egin nuen lan: *Goenkale, La que se acerca, Escenas de matrimonio...* Ondoren Mikel Ramirez, Iban del Campo, Patxi Urkijo eta beste batzuekin aritu nintzen, eta La Pez sortu genuen. Idazten eta



Casas Reales Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Kepa Herguedas Manso
Col. nº 48000757

Maria Conde Bilbao
Col. nº 48000983

Mixine 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmialdiak: 670 985 885 - www.cdxorierri.com

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elengabeko ordulegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA



*“Iru”k iragarkietan eta
telesaiοetan egin du
lan: Goenkale, La
que se avencina...*

zuzentzen ere ibili naiz, eta erabat gustatzen zait.

Zer da La Pez?

La Pez komando artistikoa da. Antzerki Laborategia da, ildo hauek jorratzen dituen: jokoa oinarritutako lan egiteko modua, hainbat hizkuntza elkartzea eta ikusleekin zuzeneko komunikazioa lantzea. Bilaketa iraunkor batean murgilduta gaudela jorratzen ditugu horiek guztiak.

Ezohiko ekimenetan hartu duzu parte, ezta? Zer da egin duzun gauzarik arraroena?

Oraindik lantzen gabiltzan ekintza bat: Kinki Sozial Klub. Pertsona talde batek osatzen du kluba, eta haien artean zorro-lapur profesionalak ere badaude. Publikoa konturatu gabe, euren poltsa, motxila edo patriketan opariak sartuko ditugu. Ekintza poetiko bat da, gaztelaraz esaten dugun moduan, *un acto delincuente-mente poético*. Pixkanaka-pixkanaka joango zarete proiektu honi buruz gehiago entzuten.

Olentzeroren biloba

Hainbat proiektutan hartu du parte “Iru”k, eta haietako batek oihartzun handia hartu zuen lehengo abenduan. Izan ere, Olentzeroren biloba bilakatu eta Afrikara abiatu zen. “Gabonetan Olentzero ibili nintzen lanean, eta umeen gutunak jasotzen nituen. Haietan, kanpoko haurrek (Maroko, Senegal, Kolonia...) euren jatorrizko herrialdeetan bizi direnentzat ere eskatzen zituzten gauzak. Orduan bururatu zitzaidan: Olentzerok munduan zehar bidaia behar zuen, eta Euskal Herrian bizi diren umeen opariak eraman behar zizkien urrun bizi diren familiarrei”.

Horrela jaio zen *Arraun the world* ekimena. Izena hitz-jokoa da: ingelesez (*around the world*) “munduan zehar” esan nahi du, baina Iruk “arraun” hitz euskalduna gaineratu dio. “Arrauna ezinbestekoa da proiektu honetan. Itsasoaren ondoan bizi garen guztiok beti daramagu hura geure barnean, eta arrauna eramateak hori gogorarazten digu”.

Eserientzia “ikaragarria” izan da, “Iru”ren hitzetan. “Familiek esker handiz eta hunkituta hartzen dituzte

*“Iru”k hemen bizi
diren umeen
gutunak banatu
dizkie Afrikako
senideei*

gutunak, eta duten guztia eskaintzen dizute”. Bidaian momentu bitxi asko bizitzeko aukera izan du Olentzeroren bilobak. “Euskal Herrian bizi den mutil baten aitaren bila ibili ginen, eta haren argazkia besterik ez geneukan; beste behin, familia baten alaba batekin ezkondu nahi ninduten... Txarrena bueltatzea izan zen. Benetako abentura izan da!”.

Abenduan Afrikatik ibili da “Iru”, eta datorren urtean gutunak banatzen jarraitzeko asmoa du, ziurrenik Hego Amerikatik. “Bai, dagoeneko hurrengo *Arraun the world* hasi naiz prestatzen. Oraindik zehazteke dago, baina Olentzeroren bilobak badu abenturak bizitzeko gogoal”.



“Bulegoan lan egitea baino, tailerrean ibili nahiago dut”

AGURTZANE PEREZ | fresatzailea

Agurtzanek 24 urte baino ez dituen arren, oso lan-ibilbide ederra du. Gazte sondikoztarrak ile-apainketa ikasi zuen, baina baldintzak ez ziren batere onak, eta makina-erreminta ikastea erabaki zuen. Bitartean, taberna batean ere ibili zen zerbitzari. Gaur egun langabezian dago, eta laster lana topatzen ez badu, ikasteari berriro ekingo diola jakinarazi digu.



a: Itsasne Zubiri

Fresatzailea izan baino lehen ile-apainketa ikasi zenuen. Zer dela-eta?

Oso ikasle txarra izan nintzen, eta garai hartan ile-apainketa zen gustatzen zitzaidan bakarra. Bilbon ikasi nuen eta izugarri gustatu zitzaidan. Baina praktikak egin nituenean, txarto tratatu ninduten eta “lan zikina” egin behar izan nuen. Pentsatu nuen ez nuela hori egin nahi, baina praktikak bukatu bezain laster lana agertu zitzaidan. Ez nintzen ile-apaintzaile lanetan ibili, ile-tratamenduak egiten baizik. Urtebete pasa eta gero lana uztea erabaki nuen, oso gogorra baitzen: soldata txikia eta ordu asko, astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 20:00etara arte.

Ile-apaintzaile moduan esperientzia politik ez, ala?

Tira, akademiakoekin lehiaketa irabazi genuen: 60 lehiakideren artean laguna eta biok aukeratu gintuzten eta Madrilera joan ginen. Bertan modelo baten ilea apaindu behar izan genuen, bere janzkeraren arabera. Ile bildua egin genion hainbat lagunengandik. Polita izan zen.

Hainbat ile-apaindegi, baina lan gutxi? Zergatik utzi zenuen ogibidea?

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

DIETETIKA
NATUROPATIA
PRODUKTU EKOLOGIKOAK
KOSMETIKA
ESTETIKA

Sabino Arana 3 Lonja
48150 Sondika - Bizkaia
94 655 80 00 - 689 99 88 43
izpilen@gmail.com

“Ez dakit bizitza osoa emango dudan lanbide horretan, baina uste dut gustatu egingo zaidala”

“Fresako lan-baldintzak ile-apaindegikoak baino hobeak direnez, bertan lan egin nahiago dut”

Hainbat ile-apaindegi daude, eta lana egon badago, baina nik ez dut oso soldata txikiaren truke lan egin nahi. Egin ahal duzun gauza bakarra ile-apaindegia zure kabuz sortzea da, baina hori zaila da, Txorierrin ile-apaindegi asko eta asko baitaude.

Ile-apainketa utzi, eta zer eta makina-erreminta ikasi. Zergatik hain aldaketa handia? Zergatik fresatzailea?

Ez nuen argi zer egin nahi nuen. Betidanik gustatu zait eskuekin lan egitea eta amak esan zidan makina-erremintak lan egiteko aukera ederra ematen zuela. Eta honi ekin nion. Ikasle txarra izan nintzenez, ikasgai batzuk gaingitu behar izan nituen. Urte bi eman nituen ikasten, eta bitartean taberna batean ere ibili nintzen zerbitzari. Gero, titulua atera eta praktikak egin nituen. Praktikak duela hilabete bi bukatu nituen.

Zelan praktikak?

Oso pozik, baina makina baten aurrean ibili beharrean, bulegora bidali ninduten enpresakoek, eta nik tailerra na-



hiago dut. Egia esan, ez dakit bizitza osoa emango dudan lanbide honetan, baina uste dut gustatu egingo zaidala.

Fresetan-eta gizonezkoak ibili dira beti. Beste emakume fresatzailerren bat ezagutzen duzu?

Ez, ez dut ezagutzen, baina egon egongo dira, eta gizonezkoak baino hobeak izango dira (kar, kar).

Zer esan dizute lankideek? Matxismorik nabaritu duzu?

Hasiera batean ikaskideak, mutilak, harritu egiten ziren, eta bertan zer egiten nuen galdetzen zioten euren buruari. Baina gogor egin nuen lan eta klaseko onenatarikoa izan nintzen. Ez, oro har, ikaskideek ez didate matxismorik erakutsi, ezta lankideek ere.

Orain langabezian zaude. Lana azkar topatzea espero duzu? Fresatzailea izateko eskaintzarik jasotzen ez baduzu, beste heziketa mota bat egitea pentsatu duzu?

Lana laster topatzea espero dut. Eta lortzen ez badut, ikasten jarraitzeko asmoa dut, agian mekanizazio bidezko produktioko goi mailako heziketa zikloa. Beste helburuetako bat ingelesa ikastea da.

Zein nahiago duzu: fresa edo ilea? Itzuliko zinateke ile-apaindegira?

Biak gustatzen zaizkit. Ilea zaletasuntzat jotzen dut, eta batzuetan esperimenduak egiten ditut senideekin. Lan egiteko, fresa nahiago dut, baldintzak hobeak direlako. Baina beste erremediorik ez balego, bai, ile-apaindegira itzuliko nintzateke.



naturelle
AYURVEDA
KOLONEKO HIDROTERAPIA
NUTRIZIOA

✉ Astintze 2, 1. C Elor eraikinean
(trenaren lehengo hesiaren aurrean)
48160 DERIO Bizkaia

☎ 699 182 520
@ www.naturelle.es



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotsuak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Derio

Otsailak 17, barikua

18:00: Dantzak, musika eta txokolatadea, frontoian. Gurasoen alkarteak, Lainomendi dantza taldeak eta Udalak antolatuak.

Otsailak 25, zapatua

18:00: Mozorroen Lehiaketea, Batukadea eta DJ, Sollubek alean. Danerik paraje alkar-teak eta Udalak antolatua.

Lezama

Otsailak 18, zapatua. Frontoian

19:00: Artisten Lehiaketea: koreografiak, txisteak, dantzak...

21:00: Herri-afaria.

22:30: Mozorroen Lehiaketea eta saloi-dan-tzen emonaldia.

Sariak banatzea.

Diskotekea.

Larrabetzu

Otsailak 17, barikua

17:00: Umeen berbenea (eskolan edo fron-toian).

18:30: Txokolatadea (eskolan edo fron-toian).

19:30: Desfilea, Andra Mari kalean.

22:00: Erromeria, Hori Bai gaztetxean.



Mila arpegietako jaia

a: Lainomendi, Giomar, Xabi

Itsaslapurrak, munstroak, pailazoak, printzesak, zaldunak, heroiak eta makina bat pertsonaia nagusi izango dira gure herrietan. Inauterien atarian gagoz eta gehienok dogu prest mozorroa; eta halan ez bada, bat-batean asmauko dogu. Udalek, alkarteek eta herritarrek ekitaldi sorta zabala antolatu dabe Inauterien haritik. Lehiaketak, kontzertuak, afariak, erromeriak, sariak... Horreek guztiak ondoko orrialdeotan dozuez, herrika sailkatuta eta ekimen bakotxa noiz eta zein ordutan izango dan azaltzen dala, zehetasunik ez

galtzeko. Halanda be, aitatu behar da, Inauteriak ardaztat hartuta, gurean beste ekimen batzuk be egingo dirala. Sondika-ko gaztegunean, esate baterako, Inauterietarako osagarriak egiten ikasiko dabe otsailaren 4an, eta hilaren 11n gore eta fantasiazko makillaje tailerra eukiko dabe. Otsailaren 18an, xigorkiak egingo dabez. Zamudioko liburutegian arpegi-mozorro tailerra antolatu dabe otsailaren 11rako. Hiru urtetik gorako umeei dago zuzenduta eta 11:30ean izango da. Era berean, Mozorro Lehiaketea eta parrilladea egingo dabe otsailaren 25ean Gazte-estazioan, arratsaldeko 6:30etik aurrera.


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


Garmendia
ardoak

Pinoia pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA


Idoia Zubieta

Osasun-zentroa & Horte-estetika
HORTE-PLANTEAK - ORTODONTZIA-ESTETIKA
HAURRAK 2010 BELTZAIA

Dr. Areola kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Sondika (gaia: zirkua)

Otsailak 24, barikua

16:00: Txupina, jaien hasierara
16:00: Jolasak, eskolan
17:30: Kalejirea, sardinagaz. Eskolatik.
18:00: Pailazoak.
19:00: Omenaldia.
20:30: Kantu poteoa, Taberna Ibiltariagaz.
22:30: Herriko taldeen kontzertua.
00:30: Hesian.
02:00: Ze esatek.
03:00: DJ.
05:00: In sessin: DJ Urk.

Otsailak 25, zapatua

11:30: Umeentzako parkea.
12:00: Xigorkien aurkezpena.
16:00: Jubiladuentzako kafea.
17:00: Tailerra.
18:00: Erromeria, Nagusien etxean.
18:30: Umeen desfilea.
19:30: Umeen moztaroen sariak banatzea.
19:30: Xigorki eta erakusleihen sariak banatzea.
19:30: Txokolatadea.
20:30: Kalejirea eta fanfarrea.



21:30: Sardina-ehorzketea.
22:30: Herriko taldeak: Hardcore.exe.
00:30: Akerbeltz.
02:00: Nagusien moztaroen sariak banatzea.
02:30: Erromeria jarraitzea.
04:30: Diskofestea.

Loiu

(gautxoriak jai-batzordea)

Otsailak 11, zapatua.

Elotxelerriko frontoian

19:00: Umeen desfilea.
20:00: Nagusien desfilea.
20:30: Sariak banatzea.
21:00: Herri-afaria.
23:00: Diskotekea.
01:00: Karaokea.
02:00: Diskotekea.

Otsailak 17, barikua.

Zabaloetxeko frontoian

18:00: Umeen moztaroen Lehiaketeta.
18:30: Potxin eta Patxin pailazoak.
Txitxi-burruntzia.

Zamudio

Otsailak 18, zapatua. Adintsuen etxean

18:00: Xigorkien Lehiaketa.
18:30: Erromeria, Hirukote taldeagaz.

LASTER, DERION

15 ETXEBIZITZA KOOPERATIBA-ERREGIMENEAN

6 txalet atxiki

9 etxebizitza

Etxea arrazoizko prezioan
erosi nahi baduzu

DERIO

Vivienda y Gestión

INFORMA ZAITEZ:

94 439 90 49



Protagonistaz betetako urteak

Hamar urte bete dira AIKOR! aldizkariaren 0 alea argitaratu genduanetik. Eta otu jaku helburuen gaineko hausnarketea egitea. Gurean euskerearen erabilera bultzatzeaz gainera, herritarren arteko harremanak estutzea eta txorieritarron sarea osatzea helburu ebazala sortu zan aldizkaria. Gaur egun arte kaleratu ditugun 111 aleak begiratzan ibili gara, eta helburua bete dogula uste dogu. Aldizkariaren orrialdeetara txorieritar gehienon bizipenak, lorpenak eta gogoak ekarri doguzalako.

Eta hasieratik hasi gara. AIKOR! mar-txan ipintea guztion ahalegina eskatzen eban beharra zan, eta Loitutik Larrabetzura arteko biztanleek ez eben dudarik izan euren laguntzea emoteko orduan. Puri, Alberto, Juantxu, Arantzazu, Fernando, Mentxaka, Amagoia, Belen, Gotzon, Ioritz, Oihana, Juan Luis, Jasone, Jabi, Ines, Uda-ne, Maripi... Guztion izenak ipinteko, lerro batzuk beharko gendukez, kontuak atera doguz eta urte honeetan aldizkariak 171 kolaboratzaile euki ditualako. Bakotxak bere modura emon dau laguntzea: bideak zabalduz eta protagonistak gugana hurbilduz, herriko albisteak helarazoz eta artikulu zoragarriak idatziz, momentuak harrapatuz eta argazkiak aginduz, ideak proposatuz eta euren denporea oparituz.

Batzuek gugaz jarraitzen dabe hasiera-hasieratik, beste batzuek AIKOR!-rek baka-rrik hegan egin behar ebala erabagi eben aspaldian, eta beste batzuk urteek aurrera egin ahala topau dira aldizkariagaz. Guztiek sare erraldoi baten partaideak dira.

Lagun batek esan euskun behin, aldizkaria etxean jasoten ebanean, egiten eban lehenengo gauzea Sukaldaritzata irakurtzea zela. Eta Mari Terek lau urtean guretzat sukaldatu dituan plater goxo-

ak gogoratu doguz. Etxeko sukaldaritzea hurreratu deusku modu erraz baten, eta guztiok egiteko moduko errezetak emon deuskuz. Mari Terek merezitako erretiroa hartzea erabagi eban, eta Maitek hartu eban txandea. Bere eskutik ikasi dogu plater goxoak bezain sofistikuak egiten. Eta horretan jarraitzen dogu. Era berean, ezin da ahaztu eskualdeko jatetxe askok euren plater izarren sekretuak ezagutarazo deuskuezala, eta Iñakik kakoak emon deuskuzala sumillerraren beharra eta ardaoen mundua hobeto ezagutzeko.

Ordenagailuek eta hareen zirrikituek buruhauste handiak ekarten deuskuez gutariko askori. Spam-ek, mezu baztergarriek eta abarrekoek zoratu egin gaitue, eta birus birtualek gaixotu egin dabez

*Aldizkariak 171
kolaboratzaile euki
ditu urte honeetan*



gure konputagailuak. Wireless, USB, hardware, software, troiarrak, megabyteak, firewall... berba arrotzak izan dira guretzat, baina Albertok hareek guztiak hobeto ulertzen lagundu deusku hilero. Eta euskerazko informatika-erreminten barri emon deusku, eta webguneak eta albisteak hurbildu egin deuskuz. Xabier aditua da teknologian, eta teknologia bizi be, bizi daitekela azaldu deusku. Bitxikeriak ezagutu doguz bere artikulua irakurri ostean, baina batez be teknologia eta harek eskaintzen deuskuzan abantailak eta

aurrerapenak zentzuz erabili behar dirala ikasi dogu.

Irakurtzea gustaten jaku, eta Ama-goiak nagusiei, gazteei zein umeei zuzendutako liburuak gomendatu deuskuz, hareek labatik atera barriak zirala. Ohiko idazleen beharrak irakurri doguz bere aholkuei jarraituz, eta egile barriak deskubritu doguz. Belarriak be doinuz bete doguz, han eta hemengo abeslariak eta musika taldeak entzunez. Eta barreak egin doguz. Aritzek eta Nagelek Euskal Herriko *d-generazioa* kezkatzen dabezan

gaiak euren komikietan aurkeztu deus-kuez, zorroztasunez eta umorez gainezka.

Haraneko bazterretatik

Badago esaldi bat geurea dana baloraten ez dakigula adierazoten dauana, eta urrun dagoana bertokoa baino hobeto ezagutzen dogula. Guk Txorierriko bazterretatik galdu gura izan dogu, eta tipi-tapa ibili gara gure inguruetako ibilpide eta mendi-hegaletan zehar. Apur bat gehiago jakin izan dogu antxinako ohituren gainean, eta ondarea euki dogu hizpide behin

.....*Harri garria*.....

PLAN RENOBED

Otsailaren
18^{ra} arte

280€

280€-ra arteko beherapena,
ohea, koltxoia eta oinarria erostean
SUITE DELUX dendetan bakarrik (ilkusi behean)

SUITE DELUX

ATSEDENERAKO MARKA ESKLUSIBOAK
www.suitdelux.com

- 1 Leioa Koltxoi-Denda, 944 316 516
La Avanzada 80 (Bilboko norabidean)
- 2 Arteaga Koltxoi-Denda, 944 545 147
Derioko Apaiztegia
- 3 Lotara Koltxoi-Denda, 943 202 784
Errebal 19, Eibar

© 2012 SUITE DELUX. BILBO



baino gehiagotan: baserriak, errotak, eleizak, dorretxeak... Eta zerbait jakin izan ez dogunean, hori Sabini galdetu deusagu. Gure historiaren gainean asko dakian inor badago, bera dalako. Euske-rea da aldizkariaren ardatz nagusia eta gure hizkuntzaren berezitasunak be jaso gura izan doguz aldizkariaren orrialdeotan. Halan, Juan Luisek irakatsi deusku, gurean, kafea akeita esaten dala, eta berbak zelan ahoskatzen diran. Horretarako, Lukik eta Txorik kalean edota tabernan euki dabezan alkarrizketak erabili ditu.

Gure bazterrak ezagutu doguzala aitatu dogu lehen, baina egia da bidaia urrunera be egin dogula. Besteak beste, Igorregaz batera palestinarren egoerea eta eguneroko burrukea ezagutu dogu; gaurdiko eguzkia ikusi dogu Nord Kap-pen-ean (Norvegia), Jose Angelek eta Mari Carmenek paisajearen deskribape-na egiten euskuen bitartean; eta Stan urakanak harrapatu genduan Guatemalan Nora eta Txotxegaz. Eta Mexikon izan gara, Korsikan, Atenasen, Marokon, Alemanian... Eta betiko bidaia egin ebenak be ekarri doguz gogora; Amerikara joan eta han erroak bota ebezan txorierri-tarrak.

Ausartak gara eta hamaika abentura bizi izan doguz. Jon eta Gotzonegaz munda-duko mendirik altuenetariko batzuetara igon gara, eta Mauritaniako basamortua zeharkatu dogu Jongoiko eta haren lagunakaz. Paris-Brest-Paris ziklomaratoiak di-tuan 1.200 kilometro 60 orduan egin do-guz Unai eta Jokinegaz, eta Iron man batean hartu dogu parte Virginiagaz. Mo-torrera igon eta abiadura zorabiagarrian ibili gara Sondika Urban Circuit ekimene-

*Protagonistez bete
dogu aldizkaria, eta
hareen ibilpidea
partekatu dogu
irakurleakaz*

*Euskera eta
hurbiltasunari
jarraituz josi dogu
txorierri-tarraren sarea*

Denporea aurrera doa, gu ia kontu-ratu barik. Eta begien itxi-ireki batean, gure herriak asko aldatu dirala ohar-tzen gara. Auzoak handitu dira, eta azpiegitura barriak egin dira. 2001. urtean, Txorierriin 17.699 biztanle bae-goan, 19.095 egozan 2006. urtean; eta 2010. urtean, 20.250. Aldizkaria be moldatu da aldaketa horreetara, eta txorierri-tarraren sarearen hazkundeari bidea emeteko, ale-kopurua handitu behar zala konturatu ginan. Halan, 4.000 ale kaleratzetik 7.000 ale kalera-tzera pasau gara. Aikor! bailarako etxe gehienetara ailegaten da, eta, Azti-kerrek 2008. urtean egindako ikerketaren arabera, komunikabiderik irakurriena da gurean: 8.217 irakurle hilerok. Eta horiei 15 urtetik azpiko biztanleak zein Txorierritik kanpo bizi diranak gehitu behar jakez, gainera.

Bestetik, euskaldunon mapea be aldatu egin da 10 urte honeetan. Eus-taten datuen arabera, 7.507 euskaldun

an, eta suteak amatatzera joan gara Derio-ko suhiltzaileakaz. Bidean, Kukubiltxoren antzerki munduan murgildu gara, eta Eus-kal Herriko txapela lortu dogu Iñigo harri-zulatzailagaz. Baina batez be protagonis-tez bete doguz aldizkariaren orrialdeak, eta hareen bizitzea, ibilpide profesionala, erronkak eta garaipenak partekatu doguz irakurleakaz. Luzea da zerrendea: aktore-ak, idazleak, kirolariak, bertsolariak, musi-kariak, kazetariak, ipuin kontalariak, base-rritarak, argazkilariak, marrazkilariak, arti-sauak, diseinatzaileak, zapatariak, okinak, harginak... herritarak azken baten.

Egitasmoen lekukoa

Anfitrioio onak be izan gara, eta ez do-gu aukerea galdu gurerraino ezagunak hurbildu diranean. Galderaz josi doguz Benito Lertxundi, Unai Elorriaga, Jean Ha-ritschelar, Maialen Lujanbio, Tonino Caro-tone, Katixa Agirre, Kepa Junkera, Iñaki Perurena, Antonio Alvarez Solis, Ampara-noia, Txan magoa, Reincidentes... Kasu honetan be badogu zerrenda luzea.

Aldizkaria proiektu sorta zabalaren lekukoa izan da urteotan. Hareetako ba-tzuk Totoan Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioaren babesean sortu dira: Txi-

Etenbarik hazten doan sarea

	Guztira		Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	2001	2006	2001	2006	2001	2006	2001	2006
DERIO	4.846	5.262	1.321	1.603	1.314	1.309	2.093	2.162
LARRABETZU	1.551	1.730	1.177	1.226	197	287	130	154
LEZAMA	2.113	2.399	1.336	1.441	395	483	324	388
LOIU	2.199	2.095	922	969	653	548	575	509
SONDIKA	3.978	4.473	1.302	1.575	1.182	1.238	1.398	1.446
ZAMUDIO	3.012	3.213	1.449	1.499	633	698	880	906
TXORIERRI	17.699	19.095	7.507	8.313	4.374	4.563	5.400	5.565

(*) Euskaldun, ia euskaldun eta erdaldunen datuei jagokenez, urte bitik gorako herritarrak hartzen dira kontuan

egozan Txorierrin, 2001. urtean; 8.313, 2006. urtean. Ia euskaldunak 4.374 ziran 2001. urtean; 4.563, 2006. urtean. Sei urte pasau dira datu linguistikoak azkenengoz jaso

genduzanetik, eta euskaldunon kopurua altuagoa izango dalakoan gagoz. Aldizkari-tik txorierritarren sarea josten jarraituko dogu, biztanleon arteko harremana gero

eta estuagoa izan daiten, euskerearen erabilerea gero sendoagoa izan daiten, eta ez dakienez be euskerearen sare erraldoian nahastatu daitezkan.

mintx eta Altzora euskera alkarreak, Ber-balagun egitasmoa eta Baserri Antzokia, kasu. Eta beste batzuk herritarrek eurek bultzatu dabez: Jantzi Jarauntsi Troupe, Lezama saretzen, Zorribike, Garmitxa, Gure señeak, LEKE, Arroeta, Laiak, Lagunandre... Egia esan, Txorierrin mobimentu handia dago alkarteen inguruan, eta taldeek behar handia eta ordainduezina egiten dabe gizarte, kultur eta kirol arloan. Alkarte horreen guztien beharrak eta ibilpideak be euki dabe lekua AIKOR!-en: Sutondoan, Lagatzu, Zorritzetan, Arreki-kili, Gazte-elai, Gorantzaileak, Uritarra, Goiherri soka-tira taldea, Lezamako Pelota Eskola, Sondika CD, Miragarri, Ipar-Alde...

Hainbat lagun, pertsonaia, alkarre eta gai... Guztiak, interes handikoak; guztiak, txorierritarrek edo txorierritarrongandik hurbilak. Aldizkaririk irakurriena bihurtu gara 10 urte honeetan. Izan be, gure kakoak hurbiltasuna eta euskerea dira, eta ildo hareei jarraituz josi dogu sarea apurka-apurka; euskaltzaleon komundadea, herritarren senidetasuna. AIKOR! aldizkaria sortu zanetik hona, txorierritarrok izan zarie gure funtsa, eta datozen urteetan be jarraituko dogu zuen kezka, zaletasun eta interesen barri emoten.

Hemen heziketa lana da

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Sagarren Irakasgintzaren Ikastetxea

Urtzagatze Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierrin.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierrin.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

BUENO INJENIERITZA **GOBIERNO VASCO**

Ureko Q
kalitate-kudeaketaren euskarri serie
lortzen duen LHko
Bizkaiko lehenengo ikastetxea

Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri
ATE IREKIEN JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA
• Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
• Diseinua fabrikazio mekanikoa Goi maila (2.000 ordu)
• Produzioaren programazioa Goi maila (2.000 ordu)

KIMIKA
• Ingurumen-kimika Goi maila (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
• Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak Goi maila (2.000 ordu)
• Telekomunikazio eta informatika sistemak Goi maila (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA
• Merkataritza eta marketin gestioa Goi maila (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa

“Zerbitzuen kalitateari eustea dugu helburu”

LANDER AIARZA |

Txorierriko Mankomunitateburu berria

Zeintzuk dira Mankomunitateak agintaldi honetarako dituen lehentasunak?

Oso zerbitzu zehatzak eskaintzen ditugu, eta behar-beharrezkoak. Hori dela eta, horien guztien kalitateari eustea dugu helburu nagusizat. Ezin dugu esan zeinek duen lehentasuna. Besteak beste, herritarren behar eta arazo sozialei erantzuten, eta kaleak garbitzen jarraitu behar dugu.

Eraginik izango du horietan gaur egungo ekonomia-krisiak?

Zerbitzuetan ez da murrizketarik egingo. Are gehiago, gazteei laguntzeko eta orientabidea eskaintzeko zerbitzua handitu egin da, eta esku-hartze komunitario zerbitzua jarri da martxan. Arlo berri honek drogamenpekotasunen prebentziarako programaz gainera, biztanleen bizikaltatea hobetzeko helburua duten beste programa batzuk ere kudeatuko ditu.

Hegazkinek sortzen dituzten zarata eta kalteak, eta Asua ibaiak gainezka egitea herritarrek gehien kezkatzen dituzten gaietarikoa da. Zelango pausuak eman dira horien haritik?

Aireportua eta ibaiak Udalaz gaidiko erakundearen eskumenak dira; Espainiako estatuarena eta Eusko Jaurlaritzarena, hurrenez hurren. Kasu horietan, Udalen eta Mankomunitatearen lana hauxe da: arazo-erirtenbidea emango zaiela kontrolatzea eta exijitzea. Horrela, bada, Aireportuaren Isolamendu Akustikoaren Planaren Jarraipen Batzordean hartzen dugu parte, plana aurrera eramaten dela egiaztatzeko, eta haranerako hobekuntzak lortzeko. Gaur egun arte 555 etxebizitza eta ikastetxe bi intsonorizatu dira, eta lanak 162 etxebizitzatan egiten dabilta. Bestetik, ibaien ibil-

Aiarzak esan digun moduan, agintaldiari ilusio eta erantzukizun handiz egingo dio aurre. “Garai zailak dira, baina ahalegindu behar gara herritarrei eta enpresei kalitatezko zerbitzuak eskaintzen”. Mankomunitatearen zeregina izan dugu hizpide.

“Ekonomia-krisia egonda ere, zerbitzuetan ez da murrizketarik egingo”

“Tokiko zerbitzuak bateratzeak zerbitzuok modu errazagoan kudeatzea eta kostua merkatzea dakartza”

“Laster, izapideak Mankomunitatearen webgunean bertan egin ahalko dira”



guetan beharrezkoak diren lanak egitea exijitu dugu, ur-goraldiak saihesteko edo haien ondorioak arintzeko.

Mankomunitatea orain dela 21 urte osatu zuten Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko Udalek. Indarra elkartasunean dago.

Tokiko zerbitzuak bateratzeak zerbitzuok modu errazagoan kudeatzea eta kostua merkatzea dakartza. Nik oso garbi dut, eta gainontzeko Udalek ere hala izatea espero dut. Horregatik daude Mankomunitatearen barruan. Udaletako batek erakundearen eraginkortasunaren inguruko zalantzarik balu, edo zerbitzuak barka hobeto kudeatuko litzukeela uste balu, erakundetik atera beharko litzateke udalak berak horrela erabaki ondoren.

Ezagutzen dituzte herritarrek Mankomunitatea eta hark eskaintzen dituen zerbitzuak?

Herritarrei hainbatetan eman diegu Mankomunitateko zerbitzuen berri, eta horien ezagutza gero eta handiagoa da. Nolanahi ere, batzuek oraindik ez dituzte



Baliabide anitzak, txorierritarrontzat

Txorierriko Mankomunitateak 1989. urtean sortu zen, hainbat udal-zerbitzu eskualdea osatzen duten udalerrien artean emateko asmoa zuela. Sano aldatu dira gure herriak ordutik hona, eta gaur egun 20.000 biztanle baino gehiago gara. Mankomunitatea eta hark eskaintzen dituen zerbitzuak ere, aldaketa horietara eta beharizan berrietara egokitu behar izan dira. Besteak beste, sail hauek jorratzen dira erakundetik: Berdintasuna eta Euskara. "Oinarrizko gizarte zerbitzuak ere eskaintzen ditugu, adingabe eta familientzako zerbitzuak, eta gizartearen eta hezkuntzaren hartzen dugu parte. Adineko pertsonen, ezinduen, haurren eta abarrekoen arazoei ematen diegu erantzuna". Aipatutakoez gainera, hondakinen bilketa eta tratamendua ere badu Mankomunitateak bere ardurapean, baita kaleen garbiketa eta argiteri publikoa ere. "Zerbitzuok udalei kostua murriztuz, eta, aldi berean, horien

*Mankomunitateak
Estatu mailako sari
bi jaso ditu aurrera
eramandako
kudeaketagatik*

kalitatea mantenduz biztanleriari ematea dugu helburu". Argiteri publikoa da horren adibide argia. "Martxan jarri ditugun neurriei esker gastua gutxitu dugu, eta, CO2-aren isuriak jaitsi direnez, iraunkortasuna hobetu egin dugu".

Aiarzaren esanetan, Mankomunitateak txorierritarren eskura jartzen dituen baliabideek hobera egin dute denboraren poderioz, eta baieztatu daiteke herritarrek kalitate handiko zerbitzuak hartzen dituztela. "Unean uneko kexak egon ahal dira, baina saiatzeko gara gabeziak azkar konpontzen. Eta hori da hain zuzen ere

Mankomunitatearen beste ezaugarrietako bat". Aurrera eramandako lana Txorierritik kanpo ere hartu da aintzat. Horrela, duela urte batzuk Estatuko mailako saria jaso zuten kaleen garbiketa zela-eta. Orain dela gutxi beste sari bat ere eman diete herriko argietan aurrezteagatik.

Bestalde, Behargintza Txorierriko Mankomunitateak duen beste baliabide sendoa bat da. "Enplegu eta prestakuntza bulegoa izateaz gainera, enpresa garatzeko erakundea ere bada. Eskura ditugun azken datuen arabera, Behargintza bulegoak Euskadin sortzen den enplegu-eskaintzaren %8 kudeatzen du". Erakundearen bidez, Mankomunitateak garbiketa eta hondakinen bilketa arloetako zerbitzuak eskaintzen dizkie enpresei, eta, era berean, zerbitzu horien kudeaketa hobetzen lagunduko duten proiektuak sustatzen ditu aktiboki, adibidez, enpresen asoziazionismoa.

zerbitzuok ezagutzen, edo ez dute oso garbi noraino iristen diren. Esate baterako, euskara ikasteko diru-laguntzarik edo gizarte laguntzarik gabe inor ez litzateke geratu behar, horiek bazeudela ez jakitegatik. Helburua, beraz, komunikazioa areagotzea da. Herritarrek aukera dute, www.e-txorierrri.com webgunearen bidez Mankomunitatea hobeto ezagutzeko. Gainera, Biscaytik-ekin lan egiten gabil-tza, webgunean bertan biztanleek eskaerak, iradokizunak eta abarrekoak egin ahal izateko; edonondik eta edonoiz, eta Mankomunitatearen egoitzara etorri bari-rik. Laster jakinaraziko dugu zerbitzua noiz egongo den martxan, eta zeintzuk diren jarraitu beharreko pausuak.

Zeintzuk dira datozen urteetarako erronkak?

Alde batetik, zerbitzuen kalitatea bermatzea; eta bestetik, orain arte egin den bezala, jendearen eta enpresen arazoetara hurbiltzea. Hurbiltasun horrek eramango gaitu sortzen diren behar berrietara egokitzea.



“Kontzentrazio eta teknika handia eskatzen dituen jarduera da”

DANIEL OJANGUREN | aeromodelista

Daniel Ojanguren SUBYKE Derioko aeromodelismo elkartearen kidea da, eta Espainiako gaur egungo txapelduna F3C kategorian. Dani gogotik dabil pistan, bere helikopteroak milaka akrobazia egiten duela. Izan ere, hilabete gutxi barru txapelketa izango da berriro, eta titulua berrestea du helburu. Hegaldiak partekatu ditugu berarekin.

t: Itxaso Marina / a: Nacho Díaz de Liaño

Apur bat berandu ailegatu den titulua duzu...

Bai, lehian urteak daramatzadalako. Txapeldunordea izan nintzen 2002an, 2003an eta 2004an, eta bosgarren lotu nintzen 2005ean. Hurrengo urtean eta 2008an laugarren postua eskuratu nuen; eta hirugarrena 2009an. Laugarren lotu nintzen berriro 2010ean. Openetan ere hartu dut parte, eta munduko txapelketan izan naiz, Alemanian, Zamoran, Italian...

Lehiaketako helikoptero bi dituzu, zeintzuk dira euren ezaugarriak?

Batak gasolina erabiltzen du, eta beste elektrikoa da. Txapelketa lehenengoarekin irabazi nuen. Modeloa da VIVE90, JRkoa. Super Gracy fuselajea du; eta motorra IES 91 da, SR3C modeloa eta 15 cm3koa. Helikopteroak 6,200 kilo pisatzen du. Elektrikoa SILFIDE E12 da. Kontronik motorra eta erregulagailua ditu, eta Super Gracy fuselajea. Apur bat gutxiago pisatzen du. 5,800 kilo. Azken hau nahiago dut, motor indartsuagoa duelako, baldintza atmosferikoekiko sentikorra ez delako eta zarata gutxiago egiten duelako. Hala ere, elektrikoa joan den



“Helikopteroa ondo doituta edukitzean dago gakoa, eta atzamarrak 1.000 kilometro orduko abiaduran mugitzean”

urtearen erdialdean-edo erosi nuen, eta berarekin artean oso ondo moldatzen ez nintzenez, bestearekin lehiatzea erabaki nuen.

Zertan dautza txapelketak?

Lau txanda daude eta txanda bakoitzean 10 figura akrobatiko egin behar dira: hiru, hegaldi geldikorrean, eta zazpi translazioan. Figurak osatzeko ibilbide zuzenak, atzealde-biraketak... egin behar dira, arauak kontuan hartuta. Zaila da eta oso kontzentrazio handia eskatzen du. Arreta handia jarri behar da, eta teknika ere oso inportantea da. Helikopteroa ondo doituta edukitzean dago gakoa, eta

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

NARTEGIA - URDAITEGIA

VICTOR

Okela ekoizten dugu: odolosteak, txorizoa, txistorra, solomoak...
Plater aurrekoiznatu

Golri, 4 - 48150 Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Consulting Sondika S.L.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746

Misoline, 6 behean
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27



atzamarraz 1.000 kilometro orduko abiaduran mugitzean.

Non entrenatzen zara?

Lehiaketako helikopteroak aparatu handiak eta astunak dira, eta leku zabala behar da gidatzeko. Horregatik, translazioa praktikatu behar dudanean, lagun batzuekin Urduñan dudan pista joaten naiz. Derioko pista txikiagoa da eta hona soilik hegaldi geldikorrek egitera etortzen naiz, edo erakustaldiak egitera. Leku zabalagoa beharko genuke berton. Lehia-garaian hirutan edo lautan entrenatzen naiz asteen, gutxienez lau orduan. Zortzi edo hamar hegaldi egiten ditut egunean.

Zaletasun garestia da?

Aeromodelismoa ez da garestia, baina lehiari aritzea bai. Gaur egun, 200 euro baino gutxiagoren truke lor daitezke radiokontrolako aparaturen bat, hegazkina bada; eta 300 euroren truke helikopteroa bada. Lehiaketako makina batek, berriz, 3.000 euro inguru balio dezake.

Papera eta zotzak erabilia hegazkinak egiten zenituen, txiki-txikia zinela.

Izan ere, hegan egiten zuen edozein gauzak atentzia deitzen zidan. Balsa egurrezko lehenengo hegazkina lortu nuen 12-13 urte nituela, eta 17rekin nire lehendabiziko igorlea erosi eta radiokontrolako lehenengo hegazkina muntatu nuen. Lanean hasi nintzen eta 1985ean helikopteroa erosi nuen. Hor hasi zen istorioa. Zaletasunean egin dudan geldialdi bakarra delta hegalean ikasteko izan zen.

Zergatik helikopteroa aukeratu, eta ez hegazkina?

Helikopteroaren hegaldi mota gehiago gustatzen zait. Gainera, izugarri atsegin dudan tresna mekanikoa da, eta mekanikaria neu naiz: neuk muntatzen ditut helikopteroa osatzen duten aleak, neuk konpontzen dut matxurarik duenean... Endredatzen egotea gustatzen zait, ikertzen, egiten... eta zaletasun horrek aukera hori ematen dit.

Asmo berezirik urte berrirako?

Egia esan, ez. Buru-belarri arituko naiz Espainiako aurtengo Txapelketa prestatzeko, lehia oso estua delako, eta titulua berresten ahaleginduko naiz. Alemanian egingo den Europako Txapelketa joateko asmoa ere badut, eta ahal dudan open guztietara. Eta Derion urtero antolatzen den erakustaldira, noski; hori ezinbestekoa da. Pozik nabil SUBYKE elkartean eta haren bazkide egitea ez nuen birritan pentsatu. Aeromodelismoa gogo handiz bizi dugu, gazteei zuzendutako ikastaroak antolatzen dira eta ondo hornituta dagoen tailerra dugu. Helikopteroa bertan muntatu ahal duzu eta, jende gehiago dagoenez, laguntza jasotzen duzu, iritziak elkartrukatzeko dira...

Benetako helikopteroa gidatzea pentsatu duzu inoiz?

Egin dut! Lagun bat pilotua da eta bere helikopteroa gidatzen utzi zidan behin. Oso esperientzia polita izan zen; are gehiago, benetako helikopteroa gidatzea radiokontrolakoa gidatzea baino errazagoa dela esatera ausartuko nintzateke. Benetakoa gidatzen duzunean, aparatuari dagokionez beti posizio berean zaude, baina hori aldatzen da radiokontrolako helikopteroa non duzun arabera: ezkerre eskuma bihurtzen da, behea goi...

IRATXO
gazotegia

Mikel Zarate, 2 - S. lonja
Sondika, 48150
94 645 89 19

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragiti ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante
JANA - JATETxea

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Peluleria
Estetika

94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia

urel
Psicologia Social

Psicologia - Pedagogia - Logopedia

URSULA TOMÁS ALMAGRO
645 147 982
Mitzine, 3 beheko • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

URAS
Estetika eta masajea

Aiz Patxi Ugaldé, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Sarraila berria

t: Susana Rodríguez, abokatua

Goizeko zazpitan altxatu naiz. Ari-nagotik esna nengoen, amesgaiztoturik. Azkenaldi honetan ez dut lorik egiten behar den moduan. Egunez ez diot atsedeen gabeziari horrenbeste erreparatzen, eguneroko betebeharrekin ezinegon arintzen didatelako. Gauetz, ordea, ezin larritasuna burutik kendu. Iluntasunak izutzen nau, iluntasunaren isiltasunak. Jakin badaikit ez zela horrela gertatu beharko, gaua lansaioaren osteko aterpe gozoa bilakatu beharko litzatekeelako, atsedeen hartzeko babesleku irmoa, ez besterik. Baina ezin dut, nekatuta nagoelako, izugarri nekatuta. Gauetan, izuak gogortzen dit gorputza, zeharo geldiarazten nau eta antsietatearen larriak aise desitxuratzen du errealtatea. Horren ondorioz, nire onetik aterata, pentsatzen hasten naiz hobe litzatekeela hilda banengo; hil artean horrela bizi baino, hobe litzatekeela behingoan desagertuko banintz. Horrela, mundu honetatik at egonik, gizon malapartatu horrek ez ninduke gehiagotan behartuko. Eta nire burua behin betiko atsedeenaren bila hasten da une oro, nire bizitzari amaiera emateko aukera egokiaren bila.

Iratzargailua itzali dut, zarataka hasi baino lehen. Ez ditut alabak itzartu nahi. Hobeto esanda, ez dut oraindik alabak altxatzea nahi. Bakarrik egoteko beharizana daukat, nire buruarekin solasean. Azalpenak eman barik, berba egin barik, gezurretan ibili barik. Egonean egonda. Hainbat eta hainbat urtetan gezurretan ibili naizelako. Luzaroan itxurak egiten, nire umetxoak benetako egoeraz kontura ez zitezen. Beraien aita maite ninduelako itxurak egiten. Neuk maite nuelako itxurak egiten. Familia zoriontsua eratzen genuelako itxurak egiten. Horrela

Egutegiari erreparatzen badiogu, urrun dugu azaroak 25. Egun horretako aldarrikapen nagusia, ordea, ez: emakumearen aurkako indarkeria behin betiko desagertu dadila. Hura egun guztietako aldarrikapena izan behar da, eta horregatik ekarri dugu orrialde hauetara Susana Rodríguez-ek idatzitako testua. Kontakizuna Larrabetzuko Udalak antolatutako Ipuin laburren Lehiaketara aurkeztu eta lehenengo saria irabazi zuen. 2012ak hasi baino ez du egin eta, alea itxi orduko, Estatuan zazpi emakume hil dira genero-indarkeria dela-eta; 89. iaz. Kopuruon atzetik, egunero sufritzen dutenak daude. Ikara ematen du mundu mailako datuetan pentsatzeak.

betiko biziko ginatekeelako itxurak egiten. Iraganean, sekula ez nien lekurik uzten akatsei. Guzti-guztia kontrolpean eduki nahi izaten nuen, dena nire agintepetan. Lasaiago nengoelako. Gezurrezko jarrerak babesten ninduelako. Hori uste nuen nik, bederen. Segurtasun handia neukan nire familiaren aurrean, bere senitartekoen aurrean, gure lagunen aurrean, nire lankideen aurrean. Erabateko segurtasuna edozer eta edonoren aurrean. Ez nuen sekula onartuko ezagunak nitaz errukitzea, nitaz urrikaltzea. Ez nuen onartuko ezkonduen arteko porrotak jotako emakumetzat hartzea, are agutxiago tratu txarrak pairatutako emakumetzat jotzea. Zelako lotsa. Zer pentsatuko zuketen gure ezagun fin eta hautatuek? Pentsaezina zen. Nire gizona, mediku ospetsua, erasotzailea? Nori bururatuko halakorik? Zer-bait egingo nion nik! Mundu guztiak bai-

taki entzute handiko gizon batek ez duela emakumea jotzen jotzearen. Horregatik, erakutsi behar nien guztiei, eta batik bat, nire buruari, ez zela deus gertatzen. Zoriontsu bizi nintzela, emakume perfektuaren moztarri garbiaren barruan gordeta. Eta ia sinetsi nuen.

Txabusina jantzi dut. Eta gerrikoa lotzen dudana bitartean, begiak oherantz zuzendu dira. Sarritan gertatzen zait, ia konturatu gabe. Oraindik ere haren hutsunea hurbilegi antzematen dudalako. Baita nire bihotzarene ere. Noizean behin ohean etzaten naiz berriro, bere ohiko aldean. Burkoa sendo-sendo besarkatzen dut, bai eta bere usaina igarri ere. Berehala jabetzen naiz ez dela egia, baina irudikatu nahi dut. Orduan, negar egiten hasten naiz. Denbora luzean. Erabat itsututa nengoen berarekin ikaragarri maite nuelako, baina denbora igaro ahala konturatu nintzen ez





*Besoko seinale
ubela ukitu dut.
Bi hilabete igaro
arren, besoan
dirau oraindino*

*Nire lorpen
handiena demanda
aurkeztu eta
epailetan parte
hartzea izango da*

zela nik ikusten nuen bezain maitagarria. Agian, ez nuen maitatzeko aukera galdu nahi izan bizitzan. Txikitatik irakatsi zidaten senarra behar nuela emakume oso-oso izateko. Eta zintzo-zintzo ezkondu nintzen. Hasiera batean, senarra nuen bizi-poza, euskarria eta maite-sua. Harik eta gure alabak jaio ziren arte. Horrez geroztik, bion arteko egoera aldatu zen. Senarra ere bai.

Gorputza kremaz igurtzeari utzi diot, une batez nire buruari ispiluaurrean so egiteko. Berrogeita hamazortzi urteko gorputz biluzia. Besoko seinale ubela ukitu dut. Bi hilabete igaro arren, besoan dirau oraindino. Ez daukat gogorik jazotakoa gogoratzeko. Ezta aurreko gertakariak ere. Burutik kendu beste asmorik ez daukat. Beti bezala.

Gosaltzen amaitu berri dut nire alabak sukaldara sartu direnean. Unibertsita-

tatean ikasten dute. Nigana etorri eta musu bana eman didate masailetan. Besarkatu ditut eta elkarri begiratu diogu, hitzen beharrik gabe. Bizia emango nuke beraiena salbatzeko. Badakite. Horren trukean, alabek ahal denik ondoen maite naute. Ondoan dauzkat eta horixe da garrantzikoena niretzat. Alabaina, jakitun naiz habia gero eta hutsago dagoela eta etorkizuneko bakardadeak kezka larria eragiten dit. Hala ere, beti ahalegindu naiz nire alaben alde jokatzeko eta horrek lasaitu egiten nau. Epailetara joan nahi zuten, ni laguntzera. Ez joateko eskatu diet. Epailegiak hotzak eta arimari gabekoak dira. Laneko zereginiei itsatsita daudenean ez diegu horrenbesteko lebarik ematen, baina bertako aukietan jesartzen garenean, bestela ikusten ditugu. Eskuan lupa erraldoia daroan ezezagun baten aurrean biluztuko bagina bezala sentitzen gara. Intimitaterik ez. Gauza oro epaitzen da. Ez pentsa alabak gehiegi babestu nahi ditudala; nahikoa helduak direlakoan nago. Guztiaz ere, haien aitaren eta amaren arteko auzia da eta bazter utzi nahi ditut. Senar-emazteek bizi izandako une zoriontsuekin gogoratzea nahiago.

Gaur ez dut abokatu-maleta hartu.

Ez dut behar. Ez dut lanik egingo epailetan amaitu ondoren. Alabekin geratu naiz bazkaltzeko eta hirurok emango dugu arratsaldea elkarrekin. Ondo etorriko zaigu. Urduri samar nagoela aitortu behar dut. Jardunean hogeita hamalau urte eman ostean, lehenengoz joaten naiz demandatzaile gisa nire burua babesteko. Zutik jarriko naiz epailearen aurrean, bere itaunei eta alderdien galderei erantzungo diet. Abokatu defentsariak, hots, nire senarrarenak, galderen bidez uzurtzen saiatuko da. Baina ezagutzen dut eta ez diot utziko. Gainera, ez dit ardura, froga aski ditudalako eta azken emaitzaz ziur nagoelako. Segurutzat, diruzko isun batez zigortuko eta urruntzeko agindua ezarriko diote. Hala eta guztiz ere, zigorrak ez dit axola. Epailetan horretan, nire lorpen handiena demanda aurkeztu eta epailetan parte hartzea izango da. Adore nahi-koa izan dudalako gure bizimoduaren gezurari aurre egiteko. Nik tratu txarrak pairatu ditut, bai, baina nire senarrak tratu txarrak eragin dizkidalako marka eramango du soinean betiko.

Etxeko atea ixterakoan, sarraila aldatu behar dudala gogoratu dut.

BAR RAFI
ESPEZIALTATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Diz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Panpinatxuak botoi-zuloan

Lagun bat ikusi dot berokian panpinatxua eroiala. Paparreko bitxia eta polita dala esan deusatz, eta halakoak lezamar batek, Amaia Iruretagoienak, egiten dituala erantzun deust. Amaia gaz gelditu naz kafe bana hartze-ko, eta kolorezko panpinatxuez betetako maleta ekarri deust.



t/a: Itxaso Marina

Amaiak azaldu deust eskulanak betidanik gustaten jakozala. Eta beharrak nahikoa denpora libre a ixten deusanez, ahiztarentzat eta lagunentzat hasi zala panpinatxu-itxurako paparrekoak egiten. Lagun batek denda bi ditu -bata, Derion; eta bestea, Mungian-, eta panpinatxuak dendotan salgai jarteko proposamena egin eutsan. Munduak halan ezagutu zituan lezamarraren osagarriak. "Egia esan, hasieran egiten nituan panpinatxuak gaur egun egiten ditudanakaz alderatzen baditut, hareek bilakaerea handia euki dabela uste dot. Hasierakoak oso sinpleak ziran, eta gaur egungoei osagarriak eta guzti jarten deusatz: boltsea, botak, lepokoa..."

Jantziak ibiltokian erakusten dituen izen handiko jostunek moduan, Amaiak urtaroen arabera jantzen ditu panpinatxuak. "Udabarri-udarako eta udazken-negurako egiten dodaz paparreko sortak. Autodidakta naz eta ideak handik eta hemendik ateraten dodaz. Panpinatxua egiten nabilela, hari zer jator kon ondo, eta zer ez, ikusten joaten naz". Emaitzak edonork -nagusiek, gazteek zein umeek- erabili daik ean osagarri deigarriak eta modernoak dira. Are gehiago, horreke erabat eksklusiboak dira, paparreko bi bardinik ez dagoalako, eta bezeroa seguru

*Erabat eksklusiboak
dira, paparreko
bi bardinik
ez dagoalako*

 LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

 **makla**
arkitektura

Teknolagi Parkeko Elkarteia. 804.E - 107 B
94 431 79 21 - 48960 Derio, Bizkaia
653 06 386 estudio@maklaarkitektura.com
620 060 111 www.maklaarkitektura.com

 **TXORIERRI MARMOLDEGIA**

Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2



egon daiteke beste inork ez daukala bera-rena moduko osagarriak eroango. "Neur-rrirako beharrak be egiten dodaz: bilbaini-tak, Athleticeko jokalaria, maitegarriak... Bestetik, Erakusleihen Derioko Lehiaketa zala-eta, Olentzero eta Mari Domingi egin nituan Poxpolin dendarako, lehenengo saria lortu genduan".

Birziklatuak

Amaiak batez beste ordu bi emoten ditu paparreko bakotxa egiteko. Ardi-ulea erabilten dau, panpinatxuen ulerako; eta feltroa, arpegiak eta jantziak egiteko. Eta birziklatu daiteken edozein gauza bihur-

tzen dau panpinatxuen boltsa, botak edo apaingarri: jostailu zaharrak, bikiniak, erroparen etiketak eta boltsen zatiak, tar-tean. Era berean, aletxuak erosten ditu eskulan dendetan. "Gatxena egiten ulea da. Ondo lotu daiten, panpinatxuaren buruaren hainbat lekutan josi behar dala-ko. Ez da erraza ule bakotxa bere lekuan egotea lortzea; jantzia, osteria, momentu baten egiten da".

Paparrekoak Poxpolin Derioko den-dan dagoz salgai, 19,90 eurotan. Azaldu deuskuen legez, gaur ipini, eta biharko agortu egiten dira. "Lagunak eta senarrak animau ninduen abendura honetan sar-tzera, eta autortu behar dot oso pozik nagoala. Paparrekoek oso harrera ona euki dabe; berokian, fularrean, boltsan edo edozein lekutan ipini daikezuz, eta ederto emoten dabe". Hainbat aukera aztertzen dabil Amaia, eta, paparrekoen arrakastea ikusita, baliteke azoketan-eta saiatzea. Eta bestelako osagarriak be egi-ten hastea, boltsak, esate baterako.

*Berokian, fularrean,
edozein lekutan ipini
daitekez, eta ederto
emoten dabe*

ETXADI ADMINISTRACION de FINCAS

Jabeen erkidegoak, garajeak eta lokalak

Diru-laguntzak lortzeko izapideak:
etxak, teilatuak...

Arreta pertsonalizatua

Administratzaile kolegiatua

San Miguel, 4 - Amorebieta-Etxano
etxadi@gmail.com
Tel.: 94.630.88.65

Bai Euskarari

urrats biziak

zurtaginaren elkarlana

bai

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIVA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK

ZERRITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

AIRETALDE, 139 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX 94 455 64 87

On egin kafetegia

Hamburgerak - otartekoak - sartenekoak
plaser konbinatuak - gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz

etxera eramateko zerbitzua

Airetalde auzoa, 48-behea
48196 Lezama

94 455 63 94

GOXO-GOXO LOHITZUN

Airetaldetik zabalik
Ogile egutierak
Pastelak enkarguz

Garaiozka, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Eraikitze bideko taldea

SD ZAMUDIO ARETO FUTBOL TALDEA

SD Zamudio Txorierriko kirol elkarte nagusietako bat da, baina Europa mailako beste klub handiak bezalaxe, Zamudiokoak ez dira soilik futbolekin aritzen. Klubean saskibaloian eta areto-futbolekin ere jokatzeko dute, eta azken horri bultzada berezia eman diote aurten.



a: Eleder Gorrotxategi

Areto futbola aurreko mendeko azken hamarkadan jarri zen modan, eta 1999an heldu zen SD Zamudio taldera. "Garai hartan futbol taldeko jokalariek ohiek eta B taldeko beste batzuek areto-futbol taldea sortzeko asmoa helarazi ziguten batzordekoek, eta guk hala egin genuen", esan digu Rubén Glera presidenteak. Hamabi urte hauetan ibilbidea "ona" izan da, taldeak mailaz igotzea lortu zuelako. Aretofutbol taldea ez da izen bereko futbol taldea bezain indartsua, baina hazi nahi du, eta horretarako eskarmentu handiko entrenatzailea fitxatu du, Eleder Gorrotxategi derioztarra.

Eleder "gogotsu" etorri da Zamudiora. "Deitu zidatenean interesgarria iruditu zi-

*"Datorren urteetan
zamudioztar gehiagok
taldean jokatzeko
nahi dugu"*

tzaidan. Entrenatzeko erdi-mailako titulua daukat eta goi-mailakoa lortzen nabil momentu honetan. Ibilbide luzea izan dut eserlekuan, hainbat kategoriatan ibili naitzelako entrenatzaile: Nazional B mailan, Lehenatasuneko mailan, Lehen mailan eta Bigarren mailan". Hainbat kategoria eta hainbat talde, eta haietako bat, Derio-ko Pozgarri taldea. "Betidanik izan da bailarako talderik indartsuena, eta hemendik

*"Bi urteren buruan
Lehenatasuneko
mailara igotzeko
aukera izango dugu"*

aurrera bere lekua betetzen saiatuko gara", dio presidenteak.

Pozgarri taldeak herriko jendearekin baino ez du jokatzeko, eta Zamudio taldean ere gauza bera egin nahi dute. Gaur egun 14 jokalarik osatzen dute taldea. Gehienak bilbotarrak dira eta bakarra, Zamudiokoa. Joera hura aldatzea nahi dute klubekoek. "Datorren urteetan zamudioztar gehiagok taldean jokatzeko gustatuko li-

tzaidake. Herria taldean inplikatzeari nahi dut. Harrobia landu behar dugu. Horretarako, ekimen bereziak egiteko asmoa dugu udarora begira, gazteengan zaletasuna pizteko. Epe luzean, gazte mailako taldea sortzea gustatuko litzaidake", aipatu du Elederrek. "Badakigu ez dela bat ere erraza izango, gehienek futbolean jokatzen baitute. Inguruko eskolekin eta Derioko institutuarekin hitz egingo dugu ea elkarrekin areto-futbola Txorierrin bultzatzen dugun", adierazi digu Rubének.

Zamudio taldeak Bizkaiko Lurraldeko Lehenengo mailan jokatzen du. "Liga oso parekatua da, eta bizpahiru talde izan ezik, maila antzekoa dago". Liga berean Bilbo inguruko eta Durangaldeko taldeek jokatzen dute, baita Txorierriko beste talde bik: Derioko Pozgarri eta Sondikako Hegalariak. Derby bi, lehiakortasun handiko partida bi. "Bai, partida bereziak dira biak eta lehia polita dago gure artean, baina oso harreman ona daukagu Txorierriko beste taldeekin", esan du Elederrek. Lehenengo itzuleran Zamudiokoek irabazi diete derioztarrei eta galdu egin dute Sondikan.

Helburua, Lehenetsunezko maila

Entrenatzaile berriak metodologia berria ekarri dio taldeari, baita jokalariek berri batzuk ere. "Ni etorri baino lehen, lagunen artean arituko balira moduan jokatzen zuten. Nik areto-futboleko oinarrien berri eman diet, eta jokalariek haiei egokitzen dabilta. Gainera, lau jokalarik utzi dute taldea, eta sei berri etorri dira aurten". Ez da harriztekoa, beraz, denboraldia irregularra izatea. "Tarte onak eta txarrak izan ditugu orain arte, ea oreka lortzen dugun. Apurka-apurka gero eta hobeto ezagutzen dugu elkar eta taldea osatzen gabiltza. Aurten hori da inportanteena, taldea osatzea".

Taldea finkatzea ez da asmo makala, baina SD Zamudio klubekoek gora begiratu nahi dute. "Jokalariek ikasteko irrikan daude, eta ni oso gustura nabil. Aurten saiklapenaren erdian bukatuko dugu, ziurrenik. Hala ere, nik uste dut bi urteren buruan Lehenetsunezko mailara igotzeko aukera izango dugula". Abagunea helitzen den bitartean, partidak jokatzen eta proiektua sendotzen jarraituko dute Zamudiokoek, eta bide batez areto-futbola herrian bultzatzen.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

"GOMA GOM"
Compañía Chapertons
Familia-Ikuskizuna, testu gabea
Otsailak 19, 17:00
Prezioa:
-12 urte: 5 €
+12 urte: 8 €





LOS MUPPETS
98' AG (3D)
Otsailak 3, 19:00
Otsailak 4, 18:00 / 20:30
Otsailak 5, 17:00 / 19:30



**WINX CLUB 3D:
LA AVENTURA MAGICA**
87' AG (3D)
Otsailak 11, 18:00
Otsailak 12, 17:00



J. EDGAR
136'
Otsailak 10, 20:00
Otsailak 11, 20:30
Otsailak 12, 19:30



STAR WARS

ZINEA



MONEYBALL: ROMPIENDO LAS REGLAS
133'
Otsailak 17, 20:00
Otsailak 18, 18:00 / 20:30
Otsailak 19, 19:30



LA GUERRA DE LAS GALAXIAS: EPISODIO I
131' (3D)
Otsailak 26, 17:00 / 19:30

2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

Zertzeladak, Loiuko abade-etxeen gainean

Orain dala hilebete batzuk, Loiuko abade-etxeak birmoldatzeko beharrak hasi ziran. Egitasmoa Arrietane Fundazioak bultzatu dau, eta eraikinak jatorrizko egoerara itzultzea dau helburu. Izan be, urteetan hutsik egon dira, eta euren kontserbazino-egoera nahikoa penagarria da. Hurrengo lerrootan errepasoa emon deutsegu abade-etxeen nondik norakoei, eta horretarako, Maria Romano historialariak idatzitako txostena hartu dogu erreferentziatzat.

Abadeak eleizatik urrun bizi ziran, beste herri batzuetan be, eta fededunek tarte luzea egiten eben, eleizakoak hartu behar eben bakotxean. Horregaitik, XVIII. mendearen amaieran loiuztarrek herrian etxea egiteko beharra ikusi eben, abadeak han bizi izateko. Halan, eleizarrak eta herritarrak 1800. urteko maiatzaren 25ean batu eta podere berezia emon eutsien Kalahorrako Eleizbarrutiko Eleiza-auzitegiko prokuradoreari, harek etxea egiteko epai-baimena lortu eian. Eraikina altzeta Loiuko eleizaren Fabrikaren kontura izango zan.

Baimena abuztuan lortu eben, eta han azaltzen zanez, etxean logela bi atonduko ziran; bat, parrokiako abade bakotxeko. Eta abade bakarra egonez gero, beste logelea onuradunik zaharrena hartuko eban. Biek errentea ordaindu beharko eutsien eleizaren Fabrikari. Baina arazoa egoan, eleizaren Fabrikak

*Lurra Santa Ana
kondesak ipini eban,
eta horren truke,
eleizaren Fabrikak
zortzi hegazti emoten
eutsazan urtean*

*Eraikinek erdiuneko
etxeetako ezaugarriak
zein inguruko
baserrietakoak
hartzen dabez*

lurrik ez ebalako etxea bertan egiteko. Lurra Maria Ana de Izaguirrek, Santa Ana kondesa eta Loiuko patroia zana, jarri eban. Eleizaren inguruan egozan lur guztiak kondesarenak ziran, eta harek abade-etxea egiteko lurzorua ixteaz gainera, ortu bat be emon eban. Horren truke, eleizaren Fabrikak lau oilasko emon behar eutsazan Gorpuzti-egunean; eta lau oilo, Natibitatean.


1801. urteko maiatzaren 3an, Loiuko eleizaren Fabrikak enkante publikoan atera eban 3.118 oineko azalerea. Bertan, 5.610 ikatz-karga emongo eben zuhaitz antzuak egozan. Errematatzaileak abade-etxe bi eta orturako hormea egiteko konpromisoa hartu beharko eban. Ordainsari



ikatz-kargen salmentaren irabazia (42.075 erreal) jasoko eban, eta 7.000 erreal dirutan. Beharrak Jose Ignacio de Icaza loiuztarrak egin zituan, eta 1804. urtean amaitu.

Bat bihurtu

Etxeak Zabaloetxe auzoan altzau ziran, Elizondo kalean eta San Pedro eleiza-
ren atzean. Bati 9. zenbakia ipini eutsien;
eta besteari, 11. zenbakia. Eraikin biak
bardin-bardinak dira eta euren ezauga-
rrien artean, honeexek aitatu daitezke:
neoklasizismoaren zertzeladak dabez,
eta oinplano angeluzuzena; barneko egi-
turea egurrezkoa da; hiru solairu dabez,
eta hiru bao-moltso, eta balkoia; beheko
solairua eta lehenengoa bereizten dauan
inposta egiteko, harlandua erabili zan;
lau isurialdeko teilatua dabe; eta leihoen
forjaketea barroko estiloaren arabera
egin zan. Etxe bien artean patio txiki bat
egoan, baina pasagune antzeko baten bi-
dez egozan lotuta atzeko aldean. Mado-
zen Desamortizazioaren Legearen ondo-
rioz, 11. zenbakiko sarbide nagusia itxi
zan 1893. urtean. Sarbidearen ordez, ar-
datz bertikaleko bao zuzen bi ipini ziran,
eraikinak etxe bakar bihurtuz, eta,
halan, Estatua hareetako bat beregana-
tzea saihestuz. Bestetik, 1916. urtean, bi-
garren etxeko beheko solairuan, beste
etxebizitza bat egin zan eleizako bigarren
abade-ondokorentzat. Beharrek 3.396
pezeta balio izan eben: 500 pezeta, Gas-
teizeko Apezpikutzak ipini eban; eta gai-
nontzekoa, Loiuko eleizearen Fabrikak.



*Aldaketarik
nabarmena etxe biak
bakar bat bihurtzea
izan zan, baina harek
eragin txikia euki
eban etxaurretan*

Romanok txostenean adierazo eban
moduan, Loiuko oso eraikin interesga-
rriak dira Bizkaiko landa-eremuko erai-
kuntzako tipologiaren barruan. Halan,
hareen estiloak erdiuneko etxeetako

ezaugarriak zein inguruko baserrietakoak
hartzen dauz. Era berean, etxeen eregite-
data kontuan hartzen bada, neoklasizis-
mo estilokoak dirala esan daiteke; baina
aurreko aldiko elementuak be badabez,
hau da, ezaugarri barrokoak: solairu no-
bleak bereizten dituan plakaren moldura,
esate baterako. Etxeak egin ziranetik
hona, oso gitxi aldatu da hareen elemen-
tuen morfologia. Halanda be, bao batzuk
itxi eta beste batzuk zabaldu dira denpo-
rea pasa ahala. Aldaketarik nabarmena
etxe biak bakar bat bihurtu ebana izan
zan, ziur asko. Baina aldaketa horrek
etxaurretan eragin txikia euki ebala aitatu
behar da. Abade-etxeak egiteko erabili zi-
ran materialak kalidadezkoak izan ziran:
hareharria, egurra eta burdina, batez be.

KIM7
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LEJARRENE JATETXEA
Garaioleza auzoa, 102 • LEZAMA • Tl: 94 455 65 48

8010LTZA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**
epelargi@excavazurmendi.com

MOBIL: 649 102 122
TEL/FAX: 944 554 158

Club Hípico Aretxalde
Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Alaialdirako landak • Apopilo zarbitzua
Salo • Txangoak • Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

GOIKO TABERNA *Taberna-jatetxea*
Emiliano

- Menu berriak asteburuetan
- Etxera orratzeko platerak
- Bardak asteburuetan
- Egurreko menua eta karta
- Jasotzeko eta edonizak
- Jardak zabalek

B. Garaioleza, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

t: *Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria*

Bulletin of Atomic Scientist erakundearen Azken Judizio Erlojuak gaueko 12etarako minutu bi falta zirela adierazi zuen 1953. urtean, eta hortik Iron Maiden taldearen abestia. Erloju bir-tual hori 1947. urtean sortu zen, eta gizateriak bere buruaz beste egiteko zenbat denbora falta den adierazten du. Hasieran aipatutako urtea, erloju gauegertik hurbilen egon den unea izan da; Sobietar Batasunak eta Amerikako Estatu Batuek H-bomba garatuta eta probatuta zuten urte horretako irailerako. Beste une txar bat egon zen 1984. urtean, eta erloju gauegertirako hiru minutu falta zirela gelditu zen. 1991. urtean, berriz, 23:43an gelditu zen, eta, sortu zenetik, hura izan da

Minutu bi gauegertirako?

Iron Maiden taldeak arrazoia ote?

gauegertitik urrunen egon den ordua. Harrezkero aurrera joan da.

Hasieran, erlojuak gerra nuklearra jasateko arriskua neurtzen zuen, gutxi gorabehera. Baina 2007tik hona klima-aldaketa eta bizitza zientziek izan zitzaizkiren arrisku ezeztazekin ere hartzen ditu kontuan. Egoera gero eta okerrago dago, aurtengoa den lehenengo eguneraketatik gauegertitik bost minutura gaudela atera delako ondorio.

Nire artikulua teknologiarekin daude lotuta, eta orain arte esandakoak ohiko gaiekin zerikusi handirik ez duela

pentsatuko duzue, beharbada. Baina irakurri erlojuaren azken aurreratzearren arrazoiak: "arma nuklearren pilaketa zuzentzeko politika globalik eza, gatazka nuklearren arriskua, energia nuklearraren segurtasuna eta klima-aldaketa globala". Horiek guztiek zerikusia dute teknologiarekin; edo hobeto esanda, teknologia arloan hartzen diren edo hartzen ez diren erabaki politikoei.

Teknologiaren bidez aurre egin ahal izango diegu dauden eta datozen arazo askori. Bioteknologia, adibidez, gosea eta hainbat gaixotasunen kontra erabil dezakegu; eta nanoteknologia, energia lortu eta gordetzeko sistema berriak egiteko, eta, horrela, klima-aldaketa ekiditeko. Sareak eta errealitate emendatu sistemak, komunikatu eta kultura elkarbanatzeko... edo beste gauza batzuetarako.

Denon artean erabaki behar dugu zer eta noiz merezi duen. Aurrerakuntza teknologikoak arma nuklear hobeak egiteko erabiltzen baditugu, pertsonen eskubideak urratzeko edo hainbat eremutan dauden ezberdintasunak, orekatu beharrean, handitzeko, jai dugu. Bost minutu baino ez dira falta. Teknologia lagungarri izan dezakegu. Zein izango da gizartearen erabakia?

www.thebulletin.org/content/doomsday-clock/overview



OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagatik

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 34 29 56

Ontzi berean orioa eta ura: euskara eta erdara

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

AIKORreko irakurle zuhurrak nire beste ingurutxu daki euskararen gainean. Halanda guzti, bizi dogun pepearoa luze egingo jakunez, ez letorkigu txarto pazientzia demokratikoa lantzea.

Orioa uretan da euskalduna Euskal Herri honetan. Espazio berean bizi gara eta biziko, baina ez gatoz bat. Gure arteko nork edo nork komunitate bi osotzera jo leike, orioa batetik eta erdaldunak bestetik. Baina, seguru asko, ez da hori euskaradunon aldeko jokoa. Ez ete da hobeto euskaradunok geure indarretan sinesitu eta **pitike-pitike** irabaziz, geureganatuz joatea?

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

Nor da orio eta nor ur? Ur, Euskal Herriko erdalduna da. Eta orio? Berez, bizitza euskaraz egiten dauena. Baina ez hori bakarrik, bikote erdalduna seme-alaba euskaldunak hasten baditu, euskal komunitateko partaide bilakatzen da, hau da orio bihurtzen da ze, euskara euskaldunen komunitatea da Joxe Azurmendik esango leukeen moduan. Euskaldunen moltzo horretan nor da aurrelari, gidari, kontzientziadun? Gotzon Garaterentzat euskaldun-euskaltzalea. Eta gaur egun oraindik gehiago, kontzientziarik bako euskaldunak salbuespen dira-eta.

Zelan antolatuko geunke euskal orioa, likido likin koipetsu hori? Joaten bazara Holandara, ohartuko zara zelan sozialki gizarte elebakarra dan, neerlandera besterik ez dan egiten; kulturalki, oster, eleanitza da, bizpahiru berbeta dakiez eta etxera joanda filmak jatorrizko hizkuntzan ikusten ditue.

Ur erdaldunak 100 gradutan irakiten dau; orio euskalduna eroapen handiagokoa da, pazientzia gehiagokoa, 200 gradutara heldu arte bare-bare dirau.

Izan gaitezen euskaldun, bizi gaitezen euskaltzale. Bizi gaitezen "pepe egin da", Txorierrin eta Mungialdean ondo bizi danagaitik esaten dan **lez**.

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Unbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak
ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK
Tel.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net
Txorierriko etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkai)

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK
Ugaldeguren 1 ind. 10-B nabes
48160 Derio, Bizkai
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

Inmobiliaria
ETORKI
Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53
48160 DERIO

Gorka García Llamosas
608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com
Txakur eta katuentzako pentasua
Prezio onean
Etxera eramaten dizugu

Etxeko sukaldaritza

Odoloste-flana, aza-kremeagaz

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (sei lagunentzat):****Flana:**

- 300 g barazki-odoloste
- 300 ml esnegain
- 4 arrautza
- Tomate zurrusta bat (egina)
- Gatz apur bat
- Orioa eta ogi birrindua (flan-ontzia igurtzeko)

**Aza-kremea:**

- Aza txiki bat
- Patata txiki bat
- Ura
- Gatza
- Berakatz-ale bi
- Oliba orio zurrusta bat

Prestateko area:

Flana: odolosteak 20 minutu inguruan egosiko doguz. Epeltzen diranean, azala kenduko deutsegu odolosteei. Odolostea osagaiakaz nahastu eta nahasia irabaiatu egingo dogu. Gero, flan-ontzietan banatuko dogu eta laba beroan (180 gradutan) sartuko dogu. Maria bainuan 40 minutu inguruan eukiko dogu, dana gogortu arte. Ateraterakoan, hotz bada-goz, laban berotuko doguz apur bat, eta labanaren laguntzagaz moldetik atarako doguz.

Kremea: osagaiak garbitu eta txikitu egingo doguz. Uretan egosiko doguz eta gatza botako deutsegu. Hogei minutu pasa eta gero egongo dira eginda. Berakatzak fritituko doguz eta azeari botako deusaguz. Dana irabiauko dogu, kremea egin arte. Odoloste-flana eta kremea plater sakon baten zerbitzatuko dogu. Kremea zabaldu eta flana ipiniko dogu erdian. Mahaira bero-bero aterako dogu.

**Besigua saltsa gorrian****Osagaiak (4-6 lagunentzat):**

- Kilo eta erdiko besigua (burua eta hegatzak zati bitan)
- Kipula bat
- Piper gorri bat
- Piper txorizeroa
- Pipermin bat
- Gatza eta ura
- Orioa

Presteteko area:

Kipula txikitu eta ipini oriotan frititzen. Gero, gehitu piper gorria. Kipulea eta piper gorriak eginda dagozanean, bota besigua kazuelara eta gehitu ura (edalontzi bat edo bi). Alde bat egiten danean, buelta emon zatiei. Dana egiten danean, bota pipermina eta gatza. Saltseak kolore gehiago hartu dagian, egosi piper txorizeroa beste lapiko baten, eta txinotik pasau eta gero, bota besigua dagoan kazuelara. Eragin kazuelari, saltsea ondo loditzeko.

 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak


lurrindegia **MAMEN** mertzaria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Gehi-ikusiak, orokortasun
Auzoaren kumutatuak
Mantutzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu amariako garbitasunak
Ikastetxeak
Zahar bilera
Besalde Plaza, 1 - B* Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unisex ileapaindegia
Estetika
Orduzagi jarraitua
Laser-depilazio
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Twist, Harkaitz Cano
- Gezurra odoletan, Asel Luzarraga
- Egarri egunak portualdean, Koldo Izagirre
- Izen bereziak, Juan Modesto Arrieta
- Narrazio guztiak, Joseba Sarrioinandia

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Ametsek bi ama ditu, Ophelie Texier
- Euria ari duenean, Leire Salaberria
- Nur eta haize-arrosa, Toti Martinez de Lezea
- Rita eta zilarrezko txoria, Mikel Valverde
- Motozerra, Xabier Mendiguren

MUSIKA

- Ametsak pilatzen, Su ta gar
- Hitzaetik, Hesian
- Lagunartean, Gaizka Peñafiel

Sudokua

					7		
8				5		2	
5			7	3	4		9
	9			6			
	3		9				
4							
				5		8	4
2			3				
		4	9				6

6	3	2	1	8	9	4	7	5	1
2	6	8	3	4	7	5	9	1	8
9	1	3	6	5	2	8	4	7	9
4	8	7	5	1	3	9	6	2	8
6	3	5	2	9	8	1	7	4	6
8	5	3	6	7	4	9	2	1	8
5	2	1	7	3	6	4	8	9	1
8	7	9	1	6	5	4	2	3	8
3	4	6	8	2	9	7	1	5	3

harategia - urdaltegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autocasion **NA**

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

POXPOLIN
OPARIAK ETA ARROPA

94 656 72 25

ARALAR, 4
DERIO

Erakusketak

Sondika

- > "Ckristopagania", Jesús María Arruabarrenaren eskutik. Otsailaren 3tik 28ra bitartean, Erakusketa Aretoan.

Derio

- > "A través de la mirada de un niño haitiano" erakusketa. Otsailaren 10etik martxoaren 10era, Kultur Birikan.

Zamudio

- > IZAE elkartearen argazkiak ikusgai, Zamudiotarren. Otsailaren 17ra arte.

Ikastaroak

Derio

- > Graffiti tailerra. Otsailaren 11n, 15:30ean, Gaztelekuan. Mankomunitateak antolatua.

Irteerak

Sondika

- > Astxiki-Atxarte. Otsailaren 12an, Udalak eta Gurasoen elkarrekin antolatua. Izena ematea: otsailaren 9ra arte, liburutegian.

Derio

- > Elurretara: Valdezcaray. Otsailaren 26an, 07:30ean, Nagusien etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Elorrio. Otsailaren 5ean, Txirrin-txirrin elkarrekin antolatua.
- > Pirinioak. Otsailaren 24tik 26ra bitartean, Arroeta mendi taldeak antolatua.

10. urteurrena

AIKOR! aldizkariak 10 urte bete ditu eta urteurrena otsailaren 3an, bari-kuan, ospatuko dugu Derioko Kultur Birikan. Hitzordua iluntzeko 8etan jarri dugu. Bertan, txorierritarrek egindako hainbat kultur adierazpen izango ditugu ikusgai, eta AIKOR! sariak banatuko dira. Osterantz, kopaua eskainiko da.



Lezama

- > Armikelo. Otsailaren 12an, Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Igoera Argaliora. Otsailaren 19an, Zorribike elkarrekin antolatua.

Txapelketak

Lezama

- > Eskualdeko 53. Pilota Txapelketaren finalak. Otsailaren 17an, 20:00etan, frontoian. Pilota Elkarrekin antolatua.

Ospakizunak

Txorierrri

- > **Loiu:** Santa Ageda. Otsailaren 4an, 12:00etan, Larrabari bidean dagoen parkingean; eta 17:30ean, Herriko enparantzan.
- > **Zamudio:** Santa Ageda. Otsailaren 4an.
- > **Lezama:** Santa Ageda. Otsailaren 4an, 20:00etan, Ekidazu Abesbatza eta eskolako umeen eskutik.

Bestelakoak

Derio

- > *Erandio Broad Peak 2011* bideo-emanaldia. Otsailaren 22n, 19:30ean, Kultur Birikan. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Tokiko Agenda 21. Otsailaren 23an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunizazioak antolatua.

Zamudio

- > Eguraldi ona jai batzordearen batzarra, Pazko jaiak prestatzeko. Otsailaren 14an, 19:30ean, Udaletxean.

Sondika

- > Awakening North musika taldea. Otsailaren 18an, gaztegunean.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txontxi etorbidea, 9 - Loria | Arteaga enikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 94 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

t o k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehena: 9€
bigarrena: 10€
postrea: 11€
ogia: 12€
edaria: 13€

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolin jokatzea, etorri zaitez Trippyra, Derio.

Beheko Kalea Baxo
DERIO

Jatetxea **SAN ISIDRO**

FUNKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOROGINTZA APARTEA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax: 94 454 14 18

Mungai etorbidea, 25
48160 DERIO

MODA
INFANTIL

Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA

Oir. Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**danon artean,
danontzat**

..... *Harrigarria*

PLAN RENOBED

Otsailaren
18ra arte

280€-ra arteko beherapena, ohea, koltxoia eta oinarria erostean

280€

SUIT DELUX dendetan bakarrik (Ikusi behean)



SUITE DELUX

ATSEDENERAKO MARKA ESKLUSIBOAK

① Leioa
Koltxoi-Denda,
La Avanzada 80, (Bilboko
norabidean) 944 316 516

② Arteaga
Koltxoi-Denda,
Derioko Apaiztegia
944 545 147

③ Lotara
Koltxoi-Denda
Errebal 19,
943 202 784



www.SUITDELUX.com